



# C. A. OSASUNA-REN ESTATUTUAK



## EDUKI-TAULA

### **I. IZENBURUA. ERAKUNDEAREN EGITURA.**

1. ARTIKULUA. IZENDAPENA.
2. ARTIKULUA. LEGERIA APLIKAGARRIA.
3. ARTIKULUA. EGOITZA SOZIALA.
4. ARTIKULUA. EZAUGARRI BEREIZGARRIAK.
5. ARTIKULUA. XEDEAK ETA HELBURU SOZIALA.
6. ARTIKULUA. EREMUA.
7. ARTIKULUA. IRAUPENA.

### **II. IZENBURUA. BAZKIDEAK.**

8. ARTIKULUA. BAZKIDE- ETA ABONATU-MOTAK.
9. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK.
10. ARTIKULUA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK ETA HAIK ZUZENEAN PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK.
11. ARTIKULUA. BAZKIDE-KOPURUA.
12. ARTIKULUA. BAZKIDE-IZAERA GALTZEA.

### **III. IZENBURUA. BAZKIDEAREN BABESLEA.**

13. ARTIKULUA. IZENDAPENA.
14. ARTIKULUA. EGITEKOAK.
15. ARTIKULUA. KARGUAREN IRAUPENA.
16. ARTIKULUA. ERREKLAMAZIOAK IZAPIDETZEKO PROZEDURA.

### **IV. IZENBURUA. LAGUNARTEAK.**

17. ARTIKULUA. LAGUNARTEAK.
18. ARTIKULUA. LAGUNARTEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

### **V. IZENBURUA. KLUBAREN GOBERNU-ORGANOAK.**

19. ARTIKULUA. MOTAK.

### **V. IZENBURUA. KLUBAREN GOBERNU-ORGANOAK.**

#### **1. ATALA. BATZAR NAGUSIA.**

20. ARTIKULUA. DEFINIZIOA ETA OSAKETA.
21. ARTIKULUA. ORDEZKARIEN EDO KONPROMISARIOEN HAUTAKETA.
22. ARTIKULUA. ORDEZKARIEN EDO KONPROMISARIOEN AGINTALDIAREN IRAUPENA.
23. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSI MOTAK.
24. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA: DEIALDIA ETA BILERA.
25. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN AKORDIOAK.

#### **2. ATALA. PRESIDENTEA.**

##### **1. SAILA. PRESIDENTEAREN HAUTAKETA.**

26. ARTIKULUA. HAUTAGAITZA ETA PERTSONA HAUTAGARRIAK.
27. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-DEIALDIA.
28. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN HAUTAKETA ETA OSAKETA.
29. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN EGITEKOAK.
30. ARTIKULUA. HAUTESKUNDEETAKO ERREKLAMAZIOAK.
31. ARTIKULUA. HAUTAGAITZEN OSAKETA.
32. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-MAHAIK.
33. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-MAHAIEN OSAKETA.
34. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-MAHAIEN EGITEKOAK.



35. ARTIKULUA. HAUTAGAITZEN AHALDUNAK.

36. ARTIKULUA. POSTA BIDEZKO BOTOA.

37. ARTIKULUA. PRESIDENTE HAUTETSIA ALDARRIKATZEA.

**2. SAILA. PRESIDENTEAREN EGITEKOAK ETA AGINTALDIA.**

38. ARTIKULUA. PRESIDENTEAREN EGITEKOAK ETA ESKUMENAK.

39. ARTIKULUA. PRESIDENTEAREN AGINTALDIAREN IRAUPENA.

**3. ATALA. ZUZENDARITZA BATZORDEA.**

**1. SAILA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN IZENDAPENA ETA OSAKETA.**

40. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN IZENDAPENA.

41. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN OSAKETA.

**2. SAILA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN EGITEKOAK ETA AGINTALDIA.**

42. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN EGITEKOAK ETA ESKUMENAK.

43. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN AGINTALDIAREN IRAUPENA.

44. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAK.

**3. SAILA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BATZORDEAK ETA BERTZE KARGU BATZUK.**

45. ARTIKULUA. INFORMAZIO BATZORDEAK.

46. ARTIKULUA. PRESIDENTEORDEA.

47. ARTIKULUA. IDAZKARIA.

48. ARTIKULUA. DIRUZAINA.

49. ARTIKULUA. KONTULARIA.

50. ARTIKULUA. BATZORDEKIDEAK.

**4. SAILA. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ERANTZUKIZUNA.**

51. ARTIKULUA. ARDURAREN ZIOAK ETA MODUAK.

**5. SAILA. ZENTSURA-MOZIOA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA.**

52. ARTIKULUA. ZENTSURA-MOZIOA ETA ESTATUTUAK ALDATZEA.

**4. ATALA. KUDEAKETA-BATZORDEA.**

53. ARTIKULUA. IZENDAPENA.

54. ARTIKULUA. KUDEAKETA-BATZORDEAREN OSAKETA ETA EGITEKOAK.

**5. ATALA. KUDEAKETAREN INFORMAZIO- ETA GARDENTASUN-ORGANOA EDO EKONOMIA ZAINZARAKO BATZORDEA.**

55. ARTIKULUA. XEDEA, EGITEKOAK ETA ESKUMENAK.

56. ARTIKULUA. OSAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA.

57. ARTIKULUA. TXOSTENAK.

**VI. IZENBURUA. DOKUMENTAZIO-, KONTU-, EKONOMIA-, FINANTZA- ETA DIZIPLINA-ARAUBIDEA.**

**1. ATALA. DOKUMENTU- ETA KONTU-ARAUBIDEA.**

58. ARTIKULUA. DOKUMENTU- ETA KONTU-ARAUBIDEAREN OSAKETA.

**2. ATALA. EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA.**

59. ARTIKULUA. AURREKONTU-ARAUBIDEA.

60. ARTIKULUA. EKONOMIA- ETA FINANTZA-ERAGIKETAK.

**3. ATALA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA.**

61. ARTIKULUA. \* 2016/03/17KO EZOHIKO BATZARREAN ONARTURIKO IDATZIA.

**VII. IZENBURUA. KLUBA DESEGITEA.**

62. ARTIKULUA. DESEGITEKO MODUA.

**VIII. IZENBURUA. EPEAK ZENBATZEA ETA AZKEN XEDAPENAK**

63. ARTIKULUA. EPEEN ZENBAKETA.

64. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENAK.

65. ARTIKULUA. LEGERIAREN ARABERAKO JOKABIDEA.

66. ARTIKULUA. ERREGISTROA.



## I. IZENBURUA. ERAKUNDEAREN EGITURA.

### 1. artikulua. Izendapena

CLUB ATLÉTICO OSASUNA Kirol Elkarte pribatua da, irabazi-asmorik gabekoa, 1920. urtean kirol-jarduera garatzeko asmoz sortua; futbola, zehazki. Berezko nortasun juridikoa du, bai eta jarduteko gaitasun osoa ere.

### 2. artikulua. Legeria aplikagarria.

Kluba araututa dago Elkartzeko Eskubidea arautzeko Lege Organikoaren, Nafarroako Kirol Foru Legearen, Nafarroako Kirol Erakundeak arautzeko apirilaren 14ko 80/2001 Foru Dekretuaren eta Estatutu hauen arabera, baita, izanez gero, Barne Araudiaren arabera eta gobernu- eta ordezkaritza-organoek egoki egindako akordioen arabera ere. Nafarroako Futbol Federazioan, Real Federación Española de Fútbol-en eta Liga Nacional de Fútbol Profesional-en afiliatua dago, eta Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda ere bai.

### 3. artikulua. Egoitza Soziala.

Klubak Iruñean du egoitza soziala (Sadar kalea z.g.). Alda dezake, betiere udal-mugartearen barnean, Zuzendaritza Batzordearen akordioz eta Batzar Nagusiari jakinarazirik. Egoitza soziala Iruñeko udal-mugartetik kanpo izateko, ezinbertzekoa da egoitza berria Nafarroako Foru Komunitatearen barnean egotea, eta aipatu lekualdatzea Klubaren Batzar Nagusiak onartzea.

### 4. artikulua. Ezaugarri bereizgarriak.

Klubaren kolore ofizialak elastiko gorria, galtza urdin ilunak eta buelta gorridun galtzerdi beltzak dira. Banderak bi zerrenda horizontal berdin ditu, gorria goikoa eta urdin iluna behekoa. Armarria egun Patente eta Marken Erregistro Ofizialean erregistraturikoa da.

Bertzelako koloreko jantziak ere izan ahalko dira.

Ezaugarri bereizgarria izango dira, gisa berean, bere azpiko kategorietan zaildutako jokalariekin egiten den lana eta haien aldeko apustua.

### 5. artikulua. Xedeak eta helburu soziala.

Hauek dira Klubaren xedeak:

- Futbol-txapelketa ofizialean zein lagunartekoetan, profesionalean nahiz amateurretan, parte hartzea, baita kirol hori sustatzea eta irakastea ere.
- Mota bateko edo hainbat motatako kirol-jarduerak sustatzea eta garatzea, baita jarduera horretatik eratorritako bertze batzuk ere.
- C. A. OSASUNAREN Fundazioarekin zuzeneko lankidetzak.
- Bere xede sozialaren garapenean, CLUB ATLÉTICO OSASUNAK bere harrobi-filosofia eta sortu zenetik izandako idiosinkrasia errespetatuko ditu.
- CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN berezko hizkuntzak euskara eta gaztelania dira, eta, hortaz, biak erabiliko dira Klubaren jarduerak guztietan, barne- zein kanpo-komunikazioetan... Gainera, elebitasuna bultzatuko du. Langileren batek euskara ikasteko eskaera egingo balu, CLUB ATLÉTICO OSASUNAK ikasketa hori lagundu beharko du, langile horri eskolak ordainduta. Gisa berean, bi hizkuntzen ezagutza kontuan hartuko da Klubeko langileak kontratatzerakoan, kirol-arloko langileak eta lehen zein bigarren taldeko jokalariek salbuetsita. Laburbilduta, elebitasuna sustatuko da norbanako- zein kirol-arloan.



Azkenik, komunikazio-zerbitzuak euskararen erabilera sustatuko du Klubaren ekitaldi sozial, instituzional nahiz kirol-esparrukoetan.

## 6. artikulua. Eremua.

Klubaren jardun-eremua estatu-mailakoa eta nazioartekoa da, Federation International de Football Association-ek (FIFA), Union of European Football Associations-ek (UEFA), Real Federación Española de Fútbol-ek (RFEF), Liga Nacional de Fútbol Profesional-ek (LFP) eta erakunde eskudunek ezarritako arauen arabera; baita, bertzelako kirol-jarduerez ari garela, kirol horietako federazioen arabera ere.

## 7. artikulua. Iraupena.

Kluba epemugarik gabe dago osatuta. Dena dela, desegin nahiko balitz, horretarako deituriko Ezohiko Batzarraren akordioz egin lezake.

## II. IZENBURUA. BAZKIDEAK.

### 8. artikulua. Bazkide- eta abonatu-motak.

CLUB ATLÉTICO OSASUNAKo bazkideak pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke.

Bazkide-mota hauek bereizten dira:

- a) Zenbakidun bazkideak: Klubean etenik gabeko urtebeteko antzintasuna duten adin nagusiko pertsona fisikoak eta juridikoak dira, ezarritako kuota ordainduta badute. Dena dela, bazkide bakoitzak behin baino ez du izango bazkide-izaera, nahiz eta bere izenean txartel bat baino gehiago izan.
- b) Bazkide nerabeak: Hamalau eta hamazazpi urte bitartekoak, biak barne. Bazkide nerabeek abonamendua urtero berrituz gero, adinez nagusiak bihurtzen direnean zenbakidun bazkide-izaera onartuko litzaieke, haiek hala nahi izanez gero, eta bazkide nerabe izandako etenik gabeko antzintasuna kontuan hartuko litzaieke.
- c) Bazkide haurrak: Hamalau urtetik beherakoak. Bazkide haurrek abonamendua urtero berrituz gero, adinez nagusiak bihurtzen direnean zenbakidun bazkide-izaera onartuko litzaieke, haiek hala nahi izanez gero, eta bazkide haur izandako etenik gabeko antzintasuna kontuan hartuko litzaieke.
- d) Ohorezko bazkideak: Batzar Nagusiak izendatuko ditu, Zuzendaritza Batzordearen proposamenari jarraiki, beren merezimenduagatik edo Klubari eginiko ekarpenagatik. Ohorezko bazkideen artean, Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordearen proposamenari jarraiki, Ohorezko Presidente edo Zuzendari izendatu ahal izanen du, ohorezko bazkidea izanik, aurretik Presidente edo Zuzendari izan eta halakorik merezi duen norbait.
- e) Bazkide jarraitzaileak: Zenbakidun bazkidea edo abonatua izan gabe CLUB ATLÉTICO OSASUNAKo bazkide-izaera izan nahi duten pertsona fisiko zein juridikoak.

### 9. artikulua. Bazkideen eskubideak.

1.- Zenbakidun bazkideek eskubide hauek izanen dituzte, bazkide-/abonatu-txartelaren urteko kuota ordaintzen badute:

- a) Klubaren jarduera une bakoitzean indarrean dagoen kirol-araudiaren arabera izan dadila eskatu.
- b) Bere kuotari dagokion eserlekua erabili, zenbatekoa ordaindu badu, C. A. OSASUNAK Futbol-zelaian parte hartzen duen txapelketetako partidetan zein lagunartekoetan, salbuespen hauekin:
  - Zelaia gobernua- edo kirol-itxiera jasan badu.
  - Zuzendaritza Batzordeak zelaia bertze erakunderen bati uztea erabaki badu.
  - Ezohiko ikuskizunen bat egiten bada: Zuzendaritza Batzordeak Klubari laguntzeko partidatzat jotakoak, ez denboraldiko bi egun erdi baino gehiago, eta bertze txapelketa ofizial batzuetakoak, Zuzendaritza Batzordeak abonuz kanpokotzat jotakoak, edota ongintzako lagunarteko norgehiagokak.
  - Ezinbertzeko kasuetan.
- c) Hautesle eta hautagai izan, Estatutu hauen 26. artikuluari jarraiki.
- d) Klubean sartu zirenetiko antzintasunari eutsi.
- e) Klubaren jarduerak ezagutu eta dokumentazioa aztertu, Zuzendaritza Batzordeari Bazkidearen Babeslearen bidez eskaera arrazoitua eginik. Eta, bereziki, Klubaren webgunean egon behar izanen duten urteko kontuak eta erakundearen kontu-ikuskatzaileen txostena.

- f) OSASUNAREN oinarri-futboleko taldeen partidetan doan sartu, sarrera ordaindu behar bada. Denboraldiko abonamendua lortzeko lehentasuna. Sadarren, sarrerak erosteko lehentasuna. Sadarretik kanpo bisitari gisa jokatu beharreko partidetarako sarrerak erosteko lehentasuna. Klubak diruz lagun litzakeen bidaietan deskontua izateko eskubidea.
- g) Txartela edo bazkide-izaera erakusten duen agiria izateko eskubidea, Futbol-zelaira sartzeko erabiliko dena, bertan agertuko den eserlekua erabiltzeko. Txartel edo agiri hori besterengarria izango da, hau da, hirugarrenei utz dakieke. Txartela galduz gero, edo lapurtua izanez gero, bertze bat egingen da. Bertan, kopia dela agertuko da, eta lehena baliogabetu egingen da ondorio guztietarako. Kasu honetan, bazkideak ordainduko du kostua.
- h) CLUB ATLÉTICO OSASUNATIK askatasunez bereizi.
- i) Estatutu hauei jarraiki, Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak egitea bultzatu.
- j) Estatutu hauei jarraiki, informazio-eskubidea.
- k) Klubaren ordezkartza- eta gobernu-organoetan hautesle eta hautagai izan, adinez nagusia izanez gero, Klubaren erroldan gutxienez etenik gabeko urtebeteko antzinatasuna izanez gero (presidente-kargurako salbu, Estatutu hauen 26. artikulua arabera), indarrean dagoen legeriari jarraiki erabateko gaitasun juridikoa izanez gero, eta pertsona fisikoa izanez gero.
- l) Liga eta Kopako txapelketetan Klubak antolatzen dituen partidetarako doako sarrera, Zuzendaritza Batzordeak Klubaren Egun izendatzen duen norgehiagokan salbu. Egun hori "Klubaren Egun" bakarra edo bi "Klubaren Egun Erdi" izanen da, eta Zuzendaritza Batzordeak zehazten duen prezioa ordaindu beharko da sartzeko. Dena dela, "Klubaren Eguneko" edo "Klubaren Egun Erdiko" prezioa ezin izanen da izan egun horietan publikoak ordaindu beharrekoa baino handiagoa. Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da igoera-ligaxka edo Errege Kopako norgehiagoketarako prezioa zehaztea.
- m) Bazkide guztien arteko berdintasun-printzipioa dago. Ezin da inor diskriminatu inolako jaiotze-, arraza-, sexu, erlijio- edota iritzi-arrazoirengatik edo bertzelako egoera pertsonal edo sozialengatik.
- n) Indarrean dauden legezko xedapenek eta Estatutuetakoa xedapenek onarturiko bertzelako edozein eskubide.
- 2.-Bazkide nerabe eta hurrek zenbakidun bazkideen eskubide berak izanen dituzte, aitzineko c eta e ataletan aipatua izan ezik.
- 3.-Ohorezko bazkideek norgehiagokak ikusteko eskubidea izango dute artikulua honetako mugekin, inolako kuotarik ordaindu gabe, eta zenbakidun bazkideei onarturiko gainerako eskumenak izan gabe.
- 4.- Bazkide jarraitzaileek eskubide hauek izanen dituzte:
- a) OSASUNAREN oinarri-futboleko taldeen partidetan doan sartu, sarrera ordaindu behar bada eta zenbakidun bazkideek eserlekuak bete ez badituzte.
- b) Denboraldiko abonamendua lortzeko lehentasuna.
- c) Sadarren sarrerak erosteko lehentasuna.
- d) Sadarretik kanpo bisitari gisa jokatu beharreko norgehiagoketarako sarrerak erosteko lehentasuna.
- e) Klubak diruz lagun litzakeen bidaietan deskontua izateko eskubidea, zenbakidun bazkideek eserlekuak bete ez badituzte.
- f) Klubaren jardura une bakoitzean indarrean dagoen kirol-araudiaren arabera izan dadila eskatu.
- g) Klubean sartu zirenetiko antzinatasunari eutsi. Zenbakidun bazkide izan ala bazkide jarraitzaile izan, txandaka egin ahal izanen da, lehen aldiz izena eman zutenetiko antzinatasuna galdu gabe.

## **10. artikulua. Bazkideen betebeharrak eta haiek zuzenean parte hartzeko mekanismoak.**

1.- Hauek dira bazkideen betebeharrak:

- a) Klubean sartzeko eskaera bidezko izen-ematea egin; horrek berekin dakar Klubaren Estatutuak eta gainerako araudiak onartzea.
- b) Dago(z)kion kuota(k) ordaindu. Horrek bazkide-izaera emango dio, baita Estatutu hauetan jasotako eskubideak egikaritzeko aukera ere; kuota ordaindu ezean, bazkide-izaera galduko du.
- c) Klubaren izen onari eta ospeari lagundu.

2.- Ohorezko bazkideak Estatutu hauetan jasotako betebeharretatik salbuetsita izanen dira, Klubaren izen onari eta ospeari lagundu behar izatetik salbu.

3.- Gardentasuna eta parte-hartzea sustatzeko, kalitate demokratikoa areagotzeko eta Klubeko bazkideen eta gobernu-organoen arteko harremana hobetzeko, bazkideek zuzenean parte hartzeko mekanismo hauek ezarriko dira:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eskura dituen baliabide informatiko eta telematikoak erabili ahal izanen ditu, inkestak eta eztabaidarako foroak egiteko gunea sortzeko; baita Klubaren bizitzan eragina izan dezaketen kontuei buruz bazkideek zein iritzi duten jakiteko aukera emango duen edozein prozedura telematiko ere, kontsulta egiteko baino ez. Era berean, baliabide horiek erabili ahal izanen ditu bazkideei beren intereseko informazioa edota maizago eskatzen den informazioa helarazteko.
- b) Garrantzi handiko kontuei dagokienez, kontsulta-prozedura arautu ahal izanen da, eta emaitza loteslea izanen da. Prozedura horren ekimena Zuzendaritza Batzordeari edo Batzar Nagusiari dagokio, beren eskumenen arabera. Kontsultarako deialdiak informazio hau jaso behar du:
  - a. Informazio-kanpainaren ezaugarriak eta iraupena. Iraupena ezin izanen da izan hamabortz egunekoa baino motzagoa eta hilabetekoa baino luzeagoa.
  - b. Prozesuaren berme-sistema eta kontrol-neurriak. Horiek zehaztu ezean, hauteskunde-prozesuari dagozkion xedapenak kontsultara moldatu beharko dira.
  - c. Hauteskunde-aldian ezin izanen da kontsulta-deialdirik egin, ezta hauteskunde-prozesua hasteko deialdiaren aitzineko sei hiletan ere.
  - d. Adinez nagusiak diren bazkideek baino ezin izanen dute bozkatu, urtebeteko antzintasuna edukiz gero eta bazkide-izaera kendu ez bazaie.

## **11. artikulua. Bazkide-kopurua.**

Bazkide-kopurua mugagabea izanen da. Aitzitik, Zuzendaritza Batzordeak bazkide berriak egiteari uko egin ahal izanen dio, Futbol-zelaiako edukiera-arazoengatik edo Klubaren intereserako lirartekeen bertze arrazoi batzuegatik.

## **12. artikulua. Bazkide-izaera galtzea.**

Bazkide-izaera bertan behera gera liteke administrazio-ebazpen irmo edo epai irmo bidez, kirol-ikuskizunetan indarkeria, intolerantzia, arrazakeria eta xenofobia saihesteko xedapenen aurkako ekintzengatik. Zigorraldia administrazio-ebazpenak edo epaiak zehazturikoa izanen da.

Bazkide-izaera zio hauengatik galduko da:

- a) Zuzendaritza Batzordeari idatziriko gutunean Bazkideak hori nahi duela adieraztegatik.
- b) Ezarritako kuotak ez ordaintzeagatik.
- c) Kanporatua izategatik. Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiaren erabakiak kontu larriak ez betetzeagatik edo Kluba larriki kaltetuko duten edo beraren izena mespretxatuko duten ekintzengatik edo adierazpenengatik gertaturiko kanporatzeagatik.

Kanporatze hori Zuzendaritza Batzordeak adostuko du, interesdunari entzunaldia eskaini eta Bazkidearen Babesleari entzun ostean. Erabaki hori Batzar Nagusiak berretsi behar du.



d) Heriotzogatik. Kasu honetan, hildakoaren oinordekoek, aitzinetik jabetza-aldaketa eginik, abonamenduan ageri den eserlekuari eusteko eskubidea izanen dute, dagokion kuota ordainduta, baina ez antzinatasunari, pertsonari loturik baitago.

### III. IZENBURUA. BAZKIDEAREN BABESLEA.

#### 13. artikulua. Izendapena.

Bazkidearen Babeslea kide bakarreko organoa da, Zuzendaritza Batzordetik independentea. Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du, hala eskatzen duten bazkideen artean. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak deialdia egingen du, eta eskaera egin dutenen artean gutxienez hirukoa aurkeztu beharko du Ohiko Batzar Nagusian, izendapena berretsi dezan. Izendaturiko pertsonak zenbakidun bazkidea izan beharko du, eta ezin izanen da izan ez Zuzendaritza Batzordeko kidea ez Klubeko langilea. Gisa berean, ezin izanen du Zuzendaritza Batzordeko ezein kiderekin ahaidetasunik izan, lerro zuzeneko gradu-mugarik gabe edota alboko lerroko laugarren gradura arte. Kargu honek ez du ordainsaririk izanen. Bazkidearen Babesleak bazkide konpromisarioen eskubide eta betebeharrak izanen ditu, nahiz eta horretarako hautatua ez izan.

#### 14. artikulua. Egitekoak.

1.- Hauek dira Bazkidearen Babeslearen berezko egitekoak:

- a) Bazkideen eskubideak zaindu eta babestu.
- b) Bazkideek planteaturiko erreklamazio, gomendio eta iradokizun guztiak ezagutu, aztertu eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu.
- c) Bere irudiko egoki diren iradokizunak egin Zuzendaritza Batzordeari.
- d) Bazkideen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko gatazketan bitartekari-lana egin.
- e) Batzar Nagusiari, urteko txostenean, dagokion jarduera-memoria aurkeztu.
- f) Hiru hilean behin bere jarduerari buruzko txostena aurkeztu bazkideei, zeina Klubaren webgunean argitaratuko den.

2.- Bazkideen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko alor teknikoko eta kirol-arloko, lan-arloko edo agintaritza judizialaren zein Herri Administrazioaren mendeko desadostasun guztiak kanpo geratuko dira.

#### 15. artikulua. Karguaren iraupena.

1.- Bazkidearen Babesleak bera izendatu zuen Zuzendaritza Batzordearen agintaldian beteko ditu bere egitekoak. Kargua berriz bete ahal izanen du Ohiko Batzar Nagusiak berretsita.

2.- Bazkidearen Babesleak arrazoi hauengatik utziko du kargua:

- a) Izendatu zuen Zuzendaritza Batzordearen agintaldia amaitzeagatik edo agintea uzteagatik.
- b) Ezgaitasunagatik edo heriotzogatik.
- c) Zuzendaritza Batzordeari dimisioa aurkezteagatik.
- d) Bazkide-izaera galtzeagatik.
- e) Ohiko Batzar Nagusiak hala erabakitzeagatik.

Kasu horietan guztietan, Zuzendaritza Batzordeak bertze Bazkidearen Babesle bat izendatuko du, aurkezturiko hiruko horretatik; beren burua aurkezturikoen artean ezinezkoa balitz, 13. artikuluan azaldutakoaren arabera egingen du, hilabeteko epean, hurrengo Ohiko Batzar Nagusian berresteko.

#### 16. artikulua. Erreklamazioak izapidetzeko prozedura.

Erreklamazio guztiak idatziz aurkeztuko dira, Klubaren bulegoetan, erreklamatzailaren datuak eta bazkide-zenbakia adierazita. Erreklamazioak propio prestatuko diren baliabide digitalen bidez aurkeztu ahal izanen dira, baita "[defensordelsocio@osasuna.es](mailto:defensordelsocio@osasuna.es)" helbide elektronikora idatzita ere. Bazkideen erreklamazioen izapidetzeak Bazkidearen Babesleak bideratuko ditu zuzenean, erreklamazioa aurkeztu eta hogeita hamar eguneko epean Zuzendaritza Batzordeari

helarazita. Erreklamazioei idatziz erantzunen zaie, Zuzendaritza Batzordeak erreklamazioa jaso eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar eguneko epean, gehienez.

Bazkidearen Babesleak autonomia izanen du aurkezturiko erreklamazioen gaineko beharrezko ikerketak egiteko, eta ahalegina egingen du Zuzendaritza Batzordeak harturiko erabakiak bete daitezen.

#### **IV. IZENBURUA. LAGUNARTEAK.**

##### **17. artikulua. Lagunarteak.**

CLUB ATLÉTICO OSASUNAK bere helburuak bultzatzen dituzten elkarteetako kideekiko begirune berezia izanen du, Klubaren oihartzun publikoan duten garrantzia ikusita, eta aipatu elkarten independentzia errespetatuko du. Horregatik, indarrean dagoen legeriari jarraiki sorturik eta Zuzendaritza Batzordeak CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN lagunartetzat jota, izaera horri dagozkion eskubide eta betebeharrak izanen dituzte, Klubaren bizitza sozialean barneratzeko. Klubak urtero egin ahal izanen du lagunarteen batzarra, haien ordezkariak osatua.

##### **18. artikulua. Lagunarteen eskubide eta betebeharrak.**

Lagunarte Osasunazaleek beren Lagunarteen Federazioa sortu ahal izanen dute.

CLUB ATLÉTICO OSASUNAREKIN duten harremanean Lagunarteen eskubide eta betebeharrak lagunarteen araudian jasoko dira. Araudi hori Zuzendaritza Batzordearen eta Lagunarteen Federazioaren artean adostuko da eta, bertzeren artean, Estatutu hauetan jasotako bazkideen eskubide eta betebeharrak jasoko ditu. Aipatu araudia Konpromisarioen Batzarrerara eramango da, behin betiko onets dadin.

#### **V. IZENBURUA. KLUBAREN GOBERNU-ORGANOAK.**

##### **19. artikulua. Motak.**

Batzar Nagusia, Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea dira Klubaren gobernu-organoak. Gainera, bada bertze aholkularitza-organorik ere: Ekonomia Zaintzarako Batzordea eta Bazkidearen Babeslea.

#### **V. IZENBURUA. KLUBAREN GOBERNU-ORGANOAK.**

##### **1. ATALA. BATZAR NAGUSIA.**

##### **20. artikulua. Definizioa eta osaketa.**

Batzar Nagusia da Klubaren organorik gorena, eta bozkatzeko eskubidea duten bazkide guztiek osatzen dute, baldin eta mila baino gutxiago badira. Mila baino gehiago badira, aldiz, Batzar Nagusia hauexek osatuko dute: Zuzendaritza Batzordeak, bazkide konpromisario izateko nahia agertu duten antzinatasun luzeeneko ehun bazkidek, bazkide-izaera galdu ez duten eta urtebetez baino gehiagoz agindu duten presidente ohiek eta zenbakidun bazkideek (azkeneko hauek hautatzeko sistema beherago dago). Denek ahotsa eta botoa izanen dituzte. Batzar Nagusiko kide izanen dira, halaber, bozkatzeko eskubide eta guzti, ohorezko bazkideak, Bazkidearen Babeslea eta Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kideak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkaria barne.

##### **21. artikulua. Ordezkeri edo konpromisarioen hautaketa.**

- 1.- Batzar Nagusietan ordezkari izateko hauteskundeak lau urtean behin deituko ditu Zuzendaritza Batzordeak. Ordezkariak hautatzeko deialdia baino bi hil lehenago, bozkatzeko eskubidea duten bazkide guztien zerrenda eginen du Klubak, sarrera-data, izen-deiturak, bazkide-zenbakia eta, ahal dela, NA zenbakia adierazita. Zerrenda hori izango da Klubaren hautesle-errola, eta 10 egunez izanen da jendaurrean Klubaren egoitzan. Tarte horretan, Hauteskunde Batzordeak erreklamazioak egin ahal izanen ditu. Erreklamazio horiek jendaurreko epea amaitu eta hiru egunen buruan ebatzi beharko dira, Bazkidearen Babesleari entzun ostean. Ebazpenari errekurtsioa egitekotan, jurisdikzio arrunta baino ezin izanen da erabili.  
Aipatu deialdian konpromisario hautatuak izan daitezkeen bazkideen kopurua zehaztuko da. Kopuru hori jakiteko, ehun bazkide zaharrenei hogeita hamahiru batuko zaizkie milako edo zatiki bakoitzeko.
- 2.- Ordezkariak hautatzeko, bazkide-milakoen arabera bazkide-zerrendak osatuko dira (zerrenda bat milako bakoitzeko), zenbakitzearen alderantzizko norabidean zenbatuta, eta bat gehiago, zatikia bada. Zerrendetan agertzen den bazkide oro hauteslea eta hautagarria izango da zerrenda barruan.
- 3.- Ordezkari izan nahi duten bazkideek Zuzendaritza Batzordeak zehazturiko hautaketa-eguna baino hamabortz egun lehenago aurkeztu beharko dute hautagaitza, hautagai bakoitzak berea, sinatuta. Hautagaitza Klubaren bulegoetan aurkeztu ahal izanen da zuzenean, edo, bertzenaz, berariazko inprimaki ofiziala posta elektronikoki bidez bidalita. Kasu bietan, Klubak hartu izanaren agiria bidaliko du. Bazkide bakoitzak bere hautagaitza bakarrik aurkeztu ahal izanen du.
- 4.- Hautesle bakoitzak dagokion milakotik onartutako hogeita hamahiru hautagai, gehienez, bozkatu ahal izango ditu. Hauteskunde-mahaiak bozketa baino ordubete lehenago eratuko dira. Bozketa iragarritako orduan izanen da, CLUB ATLÉTICO OSASUNAKO lehen taldeak etxean jokatzeko duen egun batean.
- 5.- Zuzendaritza Batzordeak ordezkariak eta konpromisarioak hautatzeko prozesurako arau osagarriak ezarriko ditu. Hauteskunde Batzordea Klubeko Presidentea hautatzeko egindako hauteskundeetako bera izanen da; gainera, Hauteskunde Mahai ere izango da.
- 6.- Zenbaketa hauteskunde-egunean bertan egingo da. Dagokien milakoan baliozko botorik gehien lortu duten hogeita hamahiruak izanen dira hautatuak. Milakoren baten hogeita hamahiru hautagai edo gutxiago aurkeztuko balira, denak izendatuko dira ordezkari. Plaza hutsak dagokien milakoan hautatuak izan ez direnek beteko dituzte, bazkide-antzinatasunaren arabera.
- 7.- Hauteskunde Batzordearen edo Mahaiaren ebazpenen aurkako errekurtsioak jurisdikzio arruntean aurkeztu ahal izanen dira.
- 8.- Bazkide konpromisario izan ahalko dira urtebeteko antzinatasuna duten bazkideak. Bazkide konpromisarioen zerrenda bazkide orok izanen du eskuragarri.
- 9.- Ordezkoen zerrenda ordenatua egingo da; hori ere bazkide orok izanen du eskuragarri.
- 10.- Hautaturiko bazkide konpromisarioek karguari uko egin ahal izanen diote, eta ordezkapen-ordenaren arabera bazkide konpromisario izango dira. Ordena hori, gisa berean, boto-kopuruaren arabera erabakiko da, eta, berdinketa izanez gero, antzinatasunari erreparatuko zaio.

## **22. artikulua. Ordezkarien edo konpromisarioen agintaldiaren iraupena.**

Ordezkarien agintaldiaren iraupena lau urtekoa izanen da, eta epe bererako hautatu ahal izanen dira berriz. Agintaldi horretan deitzen diren Ohiko Batzar eta Ezohiko Batzar guztietara joateko eskubidea eta betebeharra izanen dute.

Konpromisarioaren izendapena idatziz helaraziko zaio interesdunari, eta, idazkian bertan, agintaldiaren hasiera- eta amaiera-data zein uko egiteko epea jakinaraziko zaizkio.

Konpromisarioei konpromisario izateak zer dakarren azaltzeko gida emanen zaie, non beren erantzukizunak, betebeharrak eta zigorrak agertuko diren.

## **23. artikulua. Batzar Nagusi motak.**

Batzar Nagusiak Ohikoak eta Ezohikoak izan daitezke:

- 1.- Ohikoa, aurretik deituta, nahitaez urtean behin bilduko da, ekitaldi ekonomikoa amaitu eta hurrengo sei hilaren buruan, eta ordena honen arabera garatu beharko da:

- a) Klubaren ekonomia-, finantza-, kirol- (Taxoare barne) eta gizarte-egoeraren azalpen-memoriaren aurkezpena, Klubeko Zuzendari Nagusiak/ek edota dagokion sailaren arduradunak egina.
- b) Klubak parte harturiko fundazio guztien urteroko txostenaren aurkezpena, organismo horien ardura duen Klubeko exekutibo nagusiak egina.
- c) Ekonomia Zaintzarako Batzordearen txostenaren aurkezpena, batzordekide batek egina.
- d) Aurreko denboraldiko urteko kontuen aurkezpena eta onespena, kontu-ikuskaritzaren txostenarekin batera; Klubak webgunearen eta posta arrunt ziurtatuaren bidez jarriko ditu eskuragarri.
- e) Hurrengo denboraldirako aurrekontuaren aurkezpena eta onespena.
- f) Urteko kontuei edo hurrengo denboraldirako aurrekontuari buruzko bazkideen proposamen guztiak gai-zerrendan jasoko dira, kontuak eta aurrekontuak onetsi baino lehen, baldin eta Batzarra bildu baino hamar egun lehenago aurkeztu badira eta konpromisarioen ehuneko hamarren edo bazkideen ehuneko hiruren babesak badute. Proposamenak dagokien epe barruan aurkeztu behar dira Klubaren bulegoetan.
- g) Zuzendaritza Batzordeko kide berrien aurkezpena.
- h) Zuzendaritza Batzordeak proposaturiko gainerako gaien azterketa eta eztabaida.
- i) Bazkidearen Babeslearen izendapena eta kargua uzteko akordioaren berrespena.
- j) Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kideen hautaketa, izendapena eta, hala badagokio, baliogabetzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariarena salbu.
- k) Urteko txostenaren eta memoriaren aurkezpena, Bazkidearen Babesleak egina.
- l) Galde-eskeak.

2.- Ezohikoan, berriz, hauek jorratuko dira:

- a) Ohiko Batzarrean lantzekoak ez diren gaien eztabaida eta onespena.
- b) Klubeko Presidentetza osatzeko hauteskundeak egiteko baimena.
- c) Estatutuak moldatzeko beharrezko akordioa egin.
- d) Ondasun higiezinak zergapetzeko edo besterentzeko baimena.
- e) Zor-tituluak jaulkitzeko baimena.
- f) Dirua maileguan hartzeko baimena. Dena dela, zorren zenbateko osoa gehi eskaturiko maileguak Klubaren urteko aurrekontuaren ehuneko berrogeita hamar baino txikiagoa bada, Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeari maileguak eskatzeko baimena eman ahal izanen dio, aipatu diru-muga ezarrita eta dagokion ekitaldi arrunterako, Zuzendaritza Batzordeak berak jarriko baldintzen arabera.
- g) Klubaren egoitza soziala aldatzeko akordioa adostu.
- h) Klubaren ezaugarri bereizgarriak aldatzeko akordioa adostu.
- i) Kluba desegiteko akordioa adostu.
- j) Gutxienez bazkideen ehuneko hamarrek garaiz eta forma egokian eskaturiko gaien eztabaida.
- k) Zentsura-mozioen eztabaida eta onespena.

3.- Ohiko Batzar Nagusietan nahiz Ezohikoetan, bazkide konpromisarioek ondorengoak onetsi edo gaitzetsi beharko dituzte, Batzarretara bertaraturikoen gehiengo soil bidez:

- a) Irudiarekin, izenarekin, ikurrekin, publizitatearekin edo hedabideetako emanaldiekin loturiko gaietan, Klubaren eskubideak ustiatzeko Zuzendaritza Batzordeak hirugarrenekin kontratuak formalizatzeko adosturiko akordioen berri eman.
- b) Zuzendaritza Batzordeak, lehen futbol taldearen jantzi ofizialean babesle nagusiaren publizitatea ezartzeko kontratuak egitean, Klubeko Batzarraren berrespena eskatu beharko du:
  - 1) Iraupena bere agintaldia amaitzen den uneko denboraldia baino luzeagoa bada.
  - 2) Mezuaren edukiak arazo hauek eragin baditzaie:
    - a) Babesletza horren jatorria babesletza instituzionala izatea eta erakunde hori, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera, Giza Eskubideak errespetatzen ez dituen herrialde batekoa izatea.
    - b) Babesletzak nolabaiteko aipamen politiko, erlijioso edo ideologikoa izatea eta CLUB ATLÉTICO OSASUNAKo askotariko bazkide edo kolektiboren bat mintzeko arriskua izatea.
    - c) Babesletzatik jasoko den diruaren jatorria legez kanpoko jardueretakoa izatea edota zerga-paradisutzat jotako herrialderen batekoa izatea. Halakoetan, Kapitalen Zuriketari buruzko Legea beteko da.
    - d) Prostituzioa edo webgune pornografikoak edo, oro har, Klubaren irudi onaren aurka egiten dutela pentsa litekeen bertzelako sektoreak iragartzea.
- c) Sadar Futbol-zelaiaren izena aldatzeko aukera adostu, aldaketa gauzatu ahal izateko.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Kluba bertze klub batekin bat egiteko, xurgatzeko edo eraldatzeko egiten dituen proposamenak onetsi, legearen arabera.
- e) Irudiarekin, izenarekin, ikurrekin loturiko eskubideak edo ikus-entzunezko eskubideak lagatzeko kontratu guztien iraupena Zuzendaritza Batzordearen agintaldia amaitzen den uneko denboraldia baino luzeagoa bada, Konpromisarioen Batzordeak berretsi beharko ditu.

- f) Hurrengo denboraldirako bazkide-kuoten aldaketak Batzarrera eraman beharko dira, baldin eta igoera edo murrizketa aurreko urteko kuotaren % 10 baino handiagoa bada.
- g) Klubeko pertsona 'non grata' proposatu eta adostu ahal izanen dira (Ohiko Batzarrean nahiz Ezohikoan).
- h) Zuzendaritza Batzordeak, Batzar Nagusiaren hasieran, batzordekideen artean moderatzailea izendatu behar du, gai-zerrendako puntuen garapena, Batzarraren garapenaren neurritasuna, hitza hartzeko txandak eta bazkideek egiten dituzten galderei erantzuteko tarreak kudea ditzan, galderak ez daitezen errepika eta bazkide konpromisario guztiek izan dezaten parte hartzeko aukera.
- i) Era berean, ondasunen salerosketetarako eta zorpetzeetarako Batzarraren baimena eskatu behar izanen da, haien zenbatespen gordina aurrekontu arruntaren % 20 baino handiagoa denean. Aparteko kasu horretarako baimena emateko, bertaratuen 2/3eko gehiengo behar izanen da.

#### **24. artikulua. Batzar Nagusia: deialdia eta bilera.**

1.- Batzar Nagusiak, Ohikoak nahiz Ezohikoak, Zuzendaritza Batzordeak deituko ditu, Batzarra egin beharreko data baino hamabortz astegun lehenago. Gisa berean, Ekonomia Zaintzarako Batzordeak ere deitu ahal izanen du Batzar Nagusia, Estatutu hauen 55.2 c) artikuluari jarraiki. Deialdi horiek Klubaren webgunean argitaraturiko iragarki bidez, gutxienez tokiko egunkari zabalduenatariko bateko iragarki bidez eta deialdi telematiko bidez eginen dira. Azkeneko kasuan, mezua jaso izana firma elektronikoko bidez bermatuko da. Azken aukera hori ezinezkoa baldin bada, bazkideen erroldan ageri den helbidera bidalitako posta ziurtatu bidez eginen da. Bazkide bakoitzarendako banakako deialdien kasuan, epea zenbatuko da haietako azkenari iragarkia bidali zitzaionetik aitzina.

Kasu guztietan, deialdian lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda zehaztuko dira.

2.- Batzar Nagusia egin aurreko 5 astegunetan, bazkideek aukera izanen dute, zalantzak argitzeko Klubeko langile kalifikatuek lagunduta, Klubaren bulegoetan Memoria, Balantzea, Emaitzen Kontua, Klubaren Ikuskatzaileek bidalitako txostena eta Zuzendaritza Batzordeak gai-zerrendako puntuetarako prestatuturiko eta bazkide konpromisarioei bidalitako dokumentazioa aztertzeko.

3.- Deitua izan behar den Batzarra deituko ez balitz, bazkideek deialdia eskatu ahal izanen dute, gutxienez ehuneko bortzek eskatuz gero, eta Batzarra hilabeteko epean egin behar izanen da; epe hori igarota Zuzendaritza Batzordeak deialdirik egin ezean, eskaera egin duen kolektiboak egin ahal izanen du deialdia, Estatutu hauetan jasotako deialdi- eta quorum-eskakizunak beteta.

4.- Batzar Nagusia lehen deialdian behar bezala osa dadin, bertaratzeko eskubidea duten bazkideen gehiengo bertaratu beharko da, aurrez aurre edo bertze norbaitek ordezkaturik. Batzar Nagusia bigarren deialdian behar bezala osatuko da bertaratuen kopurua edozein izanda ere. Bi deialdien artean, hogeita hamar minutuko tarrea izanen da.

5.- Botoa bertze norbaiten esku idatziz utziko da, datu hauek adierazita: ordezkaturikotako pertsonaren nahiz ordezkariaren izen-abizenak, bazkide-zenbakia eta nortasun agirikoa, eta bien sinadura originala. Bazkide konpromisario batek ezin izango du bazkide konpromisario baten baino gehiagoren botoa eraman. Bazkide konpromisarioen bat Batzarrera bertze norbaitek bere esku utzitako boto batekin baino gehiagorekin bertaratu balitz, boto horiek eman gabetzat joko lirateke.

6.- Bazkide konpromisario batek bere botoa bertze norbaiten esku hirutan jarraian uzten badu edo ez bada jarraian bertaratzen Batzar-kopuru berera, automatikoki baja izango da bazkide konpromisario izendatua izan zen agintaldirako, eta, horrez gain, hurrengo hauteskundeetan ezin izanen da konpromisario izateko aurkeztu.

7.- Zuzendaritza Batzordeko inork ezin izanen du bazkide konpromisario ordezkatu.

8.- Batzar Nagusiko burua Zuzendaritza Batzordeko Presidentea izanen da, edo haren lana egiten duena, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideek lagunduta, baina aurreko atalean aipatu moderatzaileari kasu egini.

9.- Batzarrerako deialdia Batzarra egin baino hamabortz astegun lehenago eginda, Zuzendaritza Batzordeak webgunean argitaratu behar izanen du, eta bazkide konpromisario bakoitzari beharrezko dokumentazioa helaraziko dio, posta ziurtatu edota posta elektronikoko bidez. Dokumentazio horrek bat etorri beharko du gai-zerrendako puntu guztiekin, bazkideek eskaturiko eta epe-kontuengatik erantzun ez diren eta Batzarrean erantzunen diren puntuak salbu. Agiri hauek osatuko dute dokumentazioa:

- a) Aurreko denboraldiko sarrera- eta gastu-kontuak.
- b) Hurrengo denboraldirako aurrekontu zehatza.
- c) Ikuskaturiko kontuak eta ikuskatzaileen balorazioa (txostena).

- d) Klubaren ekonomia-, finantza-, kirol- eta gizarte-egoeraren azalpen-memoria.
- e) Zuzendaritza Batzordeko kide berrien ezagutza.
- f) Zuzendaritza Batzordeak proposaturiko bertzelakoak.
- g) Taxoareri buruzko urteko txostena.
- h) Fundazioaren urteko txostena.
- i) Bazkideek aurkezturiko proposamenak.
- j) Ekonomia Zaintzarako Batzordearen txostena eta beraren balorazioa horren gainean (txostena).
- k) Urteko txostena eta memoriaren aurkezpena, Bazkidearen Babesleak egina.

Bazkide konpromisario bakoitzari aipatu informazioa dagokionean ez bidaltzeak Estatutuak ez betetzea ekarriko du, eta, ondorioz, Konpromisarioen Batzarra bertan behera geratzea.

10.- Bazkideen esku jarri beharra nahitaezkoa da webguneari eta bazkide konpromisarioei bidaltzeari dagokionez, aipatu bazkide konpromisarioek jaso duten edo jasotzeari uko egin dioten alde batera utzita.

11.- Batzar Nagusia egin aurreko 5 astegunetan, bazkideek Klubeko langile kalifikatuen laguntza izanen dute aitzineko ataleko informazioari buruzko zalantzak argitzeko.

12.- Batzar Nagusia C. A. OSASUNAK etxean jokutzen duen egun bateko goizean egingen da, eta Sadar zelaitik gertuko instalazioetan, deiturikoak bertaratzeko adina leku duen toki batean.

13.- Batzar horietara, bazkide ez-konpromisarioen % 5 bertaratu ahal izanen da, ahots eta botorik gabe, gonbidatu gisa, eskubide horiek ez dituztela errespetatzen badute. Hori zorrozki errespetatuko ez balute, aretoa utzi beharko lukete, eta, berriz bertaratzeko, Bazkidearen Babesleari aurkeztu beharko liokete eskaera. Batzarrera joateko eskaera-kopurua jarleku-kopurua baino handiagoa bada, hauexek hartuko dira kontuan gonbidatu horiek hautatzeko orduan:

- a) Bere garaian bazkide konpromisario izateko eskaera egin eta hautatuak izan ez zirenak hautatuko dira lehenik.
- b) Aurreko baldintza betetzen duten hautagaiak gonbidatuendako jarlekuak baino gehiago badira, boto gehien eskuratu zutenak hautatuko dira.
- c) Azkenik, eskaera gehiago balego, edo berdinketa hausteko, Klubeko antzintasun-ordenari jarraituko zaio.

## **25. artikulua. Batzar Nagusiaren akordioak.**

1.- Presidenteak deliberamenduak bideratu eta hitza hartzeko txandak banatuko ditu, eta, gaia behar adina eztabaidatuta dagoela irizten dionean, bozketara eramango du.

1.- Akordioak gehiengoz egingo dira, zuzeneko nahiz bertze norbaiten esku utzitako botoak zenbaturik, eta Presidenteak kalitatezko botoa izanen du.

2.- Emandako botoak utzi egingen dira, hobeki zenbatu ahal izateko eta gardentasunarengatik. BAI, EZ eta ZURI izendaturiko botoak gaztelaniazkoak eta euskarazkoak izanen dira, urtero ezberdinak, eta gai-zerrendako zein punturi buruzkoak diren agertuko dute azalduko da. Botoak, bozkatuak izan behar duten gai-zerrendako puntu guztienak, presidentetzaren ondoan horretarako beren-beregi ipinitako hautetsontzi gardenetan sartuko dira. Behin botoak utzita, gai-zerrendan aurrera segituko da, bertaraturiko bazkide konpromisarioen artetik zozketa bidez hautaturiko hiruk zenbaketa egin bitartean. Presidenteak eskatutakoan, emaitzaren berri emanen dute.

3.- Ondasun higiezinak zergapetzeko edo besterentzeko, zor-tituluak jaulkitzeko, Estatutuak aldatzeko edo dirua maileguan hartzeko baimenari dagokionez, akordioak egingo dira zuzenean emandako nahiz bertze norbaiten esku utzitako botoen bi hereneko gehiengoz. Zuzendaritza Batzordea ahaldundu ahal izanen da Estatutu hauen 23,2 f) artikuluko mugarekin eta bertan ageri moduan.

5.- Pertsona 'non grata' izendatu: Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak edo bazkide konpromisarioek proposaturik, pertsona 'non grata' izenda ditzake CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN aurka modu larrian egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak. Izendapen horrek bazkide ezin izatea eta Klubaren instalazioetara ezin sartzea ekarriko die. Aurkezpenak bazkide konpromisarioen % 10ena izan behar du, eta gehiengo sinplez onartuak izan behar dira.

## **2. ATALA. PRESIDENTEA.**

### **1. SAILA. PRESIDENTEAREN HAUTAKETA.**

#### **26. artikulua. Hautagaitza eta pertsona hautagarriak.**

Klubaren Presidentea hautatuko da bozkatzeko eskubidea duten bazkideen sufragio libre, berdin, zuzeneko eta sekretu bidez.

Presidentegaiak, bere hauteskunde-kanpainan, gutxienez kargu hauek ezagutarazi beharko ditu: Presidenteordea, Idazkaria, Diruzaina eta Kontularia. Presidente hautatua izateko edo zuzendaritzako kide izendatua izateko, zenbakidun bazkidea izan beharko da.

Presidente izateko, pertsona fisikoa izan beharra dago, inola ere ez elkarte baten ordezkari, eta zenbakidun bazkide gisa gutxienez bortsu urteko antzintasuna izan behar du.

Zuzendaritzako kidea izateko, pertsona juridikoen ordezkariak izan daitezkeenak, zenbakidun bazkidea izan beharra dago, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin.

Ezibertzeko betekizuna izanen da hautagaitzarendako Espainiako Bankuaren entitate-errodan erregistraturiko edozein mailegu-entitatearen, bankuren edo aurrezki-kutxaren behin-behineko abala aurkeztea, hautagaitza aurkezteko unean Klubak indarrean duen aurrekontu orokorraren ehuneko hamabortsu (% 15) bermaturik. Testu horretan, beren-beregi azalduko da abal hori automatikoki bihurtuko dela behin betiko abal, baldin eta abian dagoen hauteskunde-prozesuan C. A. OSASUNAREN Presidente eta Zuzendaritza Batzordeko kide izateko aipatu hautagaitza hautatuko balitz, C. A. OSASUNAREN Presidente izateko hautagaia karguaz jabetzen denean.

Hautagaitza kargua uzten duen hauteskundearen aurreko Batzordeak aurkezten badu, abala ez da beharrezkoa izanen, Klubak azken ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa aurkeztu badu eta emaitza horrek LFPrean aurrean hurrengo denboraldirako abala aurkeztu behar izatetik salbuesten badu.

Kargua uzten duen aitzineko Batzordetzat Estatutu hauen 31. artikuluan aurreikusitakoa joko da.

#### **27. artikulua. Hauteskunde-deialdia.**

Klubeko Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari hauteskundeak egiteko nahitaezko baimena eskatuko dio, hauteskundeak egin baino gutxienez hogeita hamar egun lehenago. Batzar horretan, Hauteskunde Batzordea eta Hauteskunde Mahaiak osatuko dira, eta egutegia eta hauteskunde-arau osagarriak onartuko dira.

#### **28. artikulua. Hauteskunde Batzordearen hautaketa eta osaketa.**

1.- Hauteskundeak egiteko baimena eskatzeaz batera, Hauteskunde Batzordea osatuko da: zozketa bidez izendaturiko bortsu bazkide konpromisariok osatuko dute, Batzarrera bertaratuak zein botoa beste norbaiten esku utzia dutenak. Prozedura beraren bidez hautatuko dira bortsu ordezkariak.

2.- Hauteskunde Batzordea eraturik, bertako kideen artean eta beren boto bidez, Batzorde horretako Presidente eta Idazkaria hautatuko dira.

3.- Hauteskunde Batzordea osatzen duten kideetako bat Presidentegai edo zuzendaritzako kide balitz, Batzorde horretako kargua automatikoki utziko luke, eta hautaturiko lehen ordezkariak hartuko luke haren lekua.

#### **29. artikulua. Hauteskunde Batzordearen egitekoak.**

1.- Hauek dira Hauteskunde Batzordearen egitekoak:

a) Klubaren bulegoetan gutxienez hamar egunez ikusgai izanen den hautesle-errola ezagutu eta onartu.

- b) Bozkatzeko eskubidea dutenen eroldari buruzko bazkideen balizko erreklamazioak ezagutu eta ebatzi.
  - c) Hautagaiak onartu eta izendatu.
  - d) Aurkez litezkeen aurkaratzeak ebatzi, hautagaien buruzkoak zein hautapen-prozesuan sor litezkeenak.
  - e) Hauteskundeetan zuzenean eta emaitzan eragina izan dezakeen edozeri buruz erabaki.
  - f) Hauteskunde Mahai eta Hauteskunde Batzorde lana egin, hautaturiko Zuzendaritza Batzordearen agintaldian egingo diren Batzar Nagusiko bazkide ordezkari edo konpromisarioentzako hauteskundeetan.
  - g) Hautagaitzak osatzeko eta abalak jasotzeko txartelak zein hauteskunde-egunean bozkatzeko txartelak egoki eman.
- 2.- Hauteskunde Batzordearen erabakiak lotesleak izanen dira, eta haien aurka aurkezturiko balizko erreklamazioek ez dute adosturikoa geldiaraziko.

### **30. artikulua. Hauteskundeetako erreklamazioak.**

Hauteskundeetako erreklamazioak Hauteskunde Batzordeari eginen zaizkio, aurkaraturiko erabakiaren hurrengo hiru astegunetan. Aurkaratze horiek bertze hiru astegunetan ebatziko dira. Hauteskunde Batzordearen ebazpenei helegitea jarri ahal izanen zaie, Jurisdikzio Arruntean.

### **31. artikulua. Hautagaitzen osaketa.**

- 1.- Hautagaitzak Hauteskunde Batzordera bideratuko dira, eta Klubeko Idazkaritzan aurkeztuko, hauteskundeak egin baino hamabortz astegun lehenago. Hautagaitza orok Presidentegaiaren izen-abizenak zehaztuko ditu, bere onespenearekin batera. Zuzendaritzako kide izango direnen izen-abizenak eta onespeneak ere bai. Baldin eta zuzendaritzako karguak pertsona juridikoen ordezkartzan badira, emaniko ordezkartzaren Notario-akta aurkeztu beharko da.
- Hautagaitzek bozkatzeko eskubidea duten bazkideen gutxienez % 5en sinadura originala izan beharko dute. Abal horiek NA zenbakiaren eta Bazkide-txartelaren fotokopia izan beharko dute, biak sinaturik. Pertsona juridikoak izanez gero, IFZren fotokopia, Bazkide-txartelarena eta abala dagien pertsonaren aldeko ahalduntzearena aurkeztuko dira, baita abala eman duen pertsonaren NAREN fotokopia eta sinadura originala ere orri guztietan. Abalak bikoiztuz gero, ez jarritzat joko dira.
- 2.- Ezarritako betekizunak betetzen dituen hautagai bakarra aurkeztuz gero, ez da bozketarik izanen. Kasu horretan, hautagarritasun-betekizunak lehenago egiaztaturik, Hauteskunde Batzordeak izendapena eginen du, eta dagokien organismoek jakinaraziko die.
- 3.- Hautagairik aurkeztuko ez balitz edota aurkezturikoek ez balituzte ezarritako betekizunak beteko, Zuzendaritza Batzordeak lanean jarraituko du, eta hauteskunde berriak deituko ditu, gehienez hilabeteko epean. Hauteskunde horietan, hautagaien bozkatzeko eskubidea duten bazkideen ehuneko bik abala emanik izan beharko dute, bai eta artikulua honetan eta Estatutu hauen 28. artikuluan ezarritako betekizunak beteta ere.
- 4.- Bigarren deialdi horretan baleko hautagairik izendatuko ez balitz, Zuzendaritza Batzordeak berriz ere deituko ditu hauteskundeak, gehienez bi hileko epean, eta betekizun orokorrak beteta izatea bertzerik ez da eskatuko, inolako abalik aurkeztu behar izan gabe.
- 5.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat Presidentegai balitz edo etorkizuneko Zuzendaritza Batzordeko kide gisa agertuko balitz, bere kargua utzi beharko luke, bere hautagaitza aurkeztu edo hautagaiaren kide zuzendaritza-karguak bete litzaketen pertsonak argitaratu baino bostz astegun lehenago. Berriz hautatuak izateko aurkezten ez diren Zuzendaritza Batzordeko kideek lanean jarraituko dute hautagai bat aukeratua izan arte, ordena honetan: Presidente, Presidenteordea edo Presidenteordeak, izanen balira, eta, beren ordena korrelatiboaren arabera, Idazkaria, Diruzaina, Kontularia edo urte gehien dituen Batzordekidea.
- 6.- Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek beren burua berriz aurkeztuko balute eta, beraz, kargua utzi behar balute, Zuzendaritza Batzorde berria lanpostuaz jabetu arte Hauteskunde Batzordeak hartuko du bere gain Kluba zuzentzeko erantzukizuna, Klubaren funtzionamendu normalari eusteko, baina kontratatzeko eskumenik gabe.



- 7.- Hautagaitzek behin-behineko abal ekonomikoa aurkeztu behar izanen dute, Estatutu hauen 26. artikulua dioenari jarraiki.
- 8.- Abala (edo behin-behineko abala) ezinbertzekoa izanen da Hauteskunde Batzordeari hautagaitza aurkeztu ahal izateko.
- 9.- Aipatu behin-behineko abala, 26. artikuluan aurreikusi bezala, Zuzendaritza Batzordearen dagokion behin betiko abal bilakatuko da, eta, hautagaitza irabazlea behin betikotzat jotakoan, gainerakoei itzuli egingen zaie.
- 10.- Hauteskunde Batzordea finantza-erakundearekin harremanetan jartzera beharturik dago, abala eskaturiko testuaren arabera eta benetakoa dela egiaztatzeko.
- 11.- Hautagaitza formala izateko, ezinbertzekoa da Ekonomia Zaintzarako Batzordeari hautagaitza bereko kideen artean abalaren erantzukizunak banatzeko edozein akordio jakinaraztea.
- 12.- Ezinbertzekoa izanen da Klubaren webgunean edonolako konpromiso, mailegu, kontra-abal edo kontra-berme argitaratzea, eta horiek eman dituzten pertsona fisiko edo juridikoen nortasuna adieraztea.
- 13.- Inola ere ezin izanen dira CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN baliabideak erabili hautagaitza aurkezteko beharrezko abala lortzeko. Horretarako, CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN Kudeatzaileak ziurtatu beharko du, egiaztagir bidez, Klubaren baliabideak ez direla erabili aipatu abala lortzeko.
- 14.- 26. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, abala aurkezteko betekizunetik salbuesteko, kargua uzten duen Batzordetzat joko da azken Presidenteak eta desegiteko uneko Zuzendaritza Batzordeko kideen gutxienez % 50ek osaturikoa, edo, kargua uzten duen Presidenteak inongo hautagaitzatan izango ez balitz, azken Zuzendaritza Batzorde aktiboko kideen gutxienez % 60k.

### **32. artikulua. Hauteskunde-mahaiak.**

- 1.- Klubaren Presidentetzarako hauteskunde-deialdia egiteko baimena eskatzen den Batzar berean aukeratuko dira, bertaturikoen artean zozketa eginik, hauteskunde-mahaietako kideak eta beharrezkoa den mahai-kopurua; bozkatzeko eskubidea duten bazkideen arabera, gutxienez bat eta gehienez hamar.
- 2.- Hauteskunde-mahaiak bozketa egin baino ordubete lehenago eratuko dira. Bozketa iragarritako orduan izanen da.
- 3.- Botoak emateko, hauteskunde-mahaiak banaturiko txartelak erabiliko dira. Hautesle-eroldan ageri den mahaiaren egingen da bozketa, NA, IFZ, gidabaimena edo pasaporteak erakutsita.
- 4.- Hauteskunde-mahaiak bozketa baino ordubete lehenago eratuko dira. Bozketa iragarritako orduan izanen da, CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN lehen taldeak etxean jokatzeko duen egun batean.

### **33. artikulua. Hauteskunde-mahaien osaketa.**

Hauteskunde-mahaietako bakoitza hauexek osatuko dute:

- a) Presidenteak, Mahaiko bazkideetan antzintasun luzeena duena.
- b) Batzordekidea.
- c) Idazkaria, Mahaiko bazkideetan antzintasun motzena duena. Mahai bakoitzeko ordezkioak Batzar berean zozkatuko dira.

### **34. artikulua. Hauteskunde-mahaien egitekoak.**

Hauek dira Hauteskunde-mahaien betebeharrak:

- a) Hautesleen nortasuna eta ahalduen egiaztagirak egiaztatu.
- b) Bozketa-txartelak hartu eta horretarako prestatuturiko hautetsontzi itxietan sartu.
- c) Botoen zenbaketa egin.
- d) Idazkariaren bidez, dagokion akta idatzi. Bertan, hautesle-kopuruaren, emandako boto baliiodunen kopuruaren, bozketaren emaitzaren eta hauteskundeko gertakarien edo erreklamazioen berri emango da. Akta hori mahaiko kide guztiek sinatuko dute.

### **35. artikulua. Hautagaitzen ahaldunak.**

Hautagaitza bakoitzak eraturiko mahai adina zenbakidun bazkide izendatu ahal izanen du ahaldun. Horiek edozein mahaitako bozketa eta boto-zenbaketa aztertu ahal izanen dute, hala nola erreklamazioak egin, kexatu eta ziurtagiriak eskatu, mahaiei euri zein Hauteskunde Batzordeari.

Ahaldunak hauteskunde-mahaiak zabaldu baino ordubete lehenago agertu beharko dira. Ahaldunek dagokien mahaiak bozkatu beharko dute.

Ahaldun-egiaztagiria Hauteskunde Batzordeak emanen du, hautagaitzek eskatuta. Ahaldunek bozkatzeko eskubidea duten Klubeko bazkide izan beharko dute, eta hauteskunde-mahaietan NA eta bazkide-txartela erakutsi beharko dute. Eskaera hori hauteskunde-eguna baino gutxienez hiru egun lehenago egingo zaio Hauteskunde Batzordeari.

Ezin izanen dute hauteskundeekin loturiko propagandarik eraman.

### **36. artikulua. Posta bidezko botoa.**

Bozkatzeko eskubidea duten bazkideek, hala nahi izanez gero, posta bidezko botoa emateko sistema erabil lezake.

Horretarako, Hauteskunde Batzordeak Klubaren bulegoetan utziko ditu horrela bozkatu nahi duten guztientzako hautagaitza-txartelak. Txartelak gutun-azal itxi batean egonen dira, eta, horrekin batera, bertze gutun-azal bat emanen zaie, bozkatu nahi duten hautagaitzaren gutun-azalarekin batera NAREN eta Bazkide-txartelaren fotokopia sar ditzaten, fotokopiak dauden bi orrietan sinadura original eta guzti; pertsona juridikoa izanez gero, IFZren fotokopia, Bazkide-txartelarena, botoa eman duen pertsonaren aldeko ahalduntzearena, baita bozkatu duen pertsonaren NANren fotokopia eta orri guztietan sinadura originala ere.

Boto hori bozketa-data baino 48 ordu lehenago aurkeztu beharko du.

Posta bidezko botoa ematen duenak ezin izanen du hauteskunde-egunean bozkatu; hala egingo balu, boto baliogabea litzateke, hala hauteskunde-egunean emandakoa nola postaz bidalitakoa.

### **37. artikulua. Presidente hautetsia aldarrikatzea.**

Boto-zenbaketa eginik, Hauteskunde Batzordeko Presidenteak boto baliadun gehien lortu dituen hautagaia aldarrikatuko du hautetsi. Berdinketa egonez gero, berrogeita zortzi orduan behin, bertze bozketa bat edo behar adina bozketa egingo da, Estatutu hauetan zehazturiko betekizun berberekin, berdinketa hautsi arte. Hautetsitako hautagaia Presidente aldarrikatua izanen da; 26. eta 31. artikuluetan zehazturikoari jarraiki sarturiko hautagaitzako kideak ere aldarrikatuak izanen dira.

## **2. SAILA. PRESIDENTEAREN EGITEKOAK ETA AGINTALDIA.**

### **38. artikulua. Presidentearen egitekoak eta eskumenak.**

1.- Presidentearen erantzukizuna da Klubaren legezko ordezkariak edonolako agintari, auzitegi, erakunde edo izaera publiko zein pribatuko entitatearen aitzinean.

2.- Gainera, eskumen hauek ditu:

- a) Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileretako buru izan, eztabaidak bideratzeko.
- b) Izendapenei oniritzia eman, eta Klubaren sinadura erabili eta eskuordetu.
- c) Zuzendaritza-kideak izendatu, Estatu hauetan zehazturikoaren arabera.
- d) Zuzendaritza-kideak kargutik kendu, kargugabetze horrek Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoaren aldeko botoa badu eta Klubean dituen erantzukizun ekonomikoetatik salbuetsiz gero.
- e) Zuzendaritza Batzordearen eskumen guztiak, hark eskuordetuta.

1.- Presidenteak ordezkaria izanen da absentiagatik edo 39.2. artikuluan a, b eta c ataletan azaldukoagatik. Ondorengo karguek ordena honetan ordezkariak dute: Presidenteordea, Idazkaria,

Diruzaina, Kontularia eta urte gehien dituen Batzordekidea, Estatutu hauen 26. eta 31. artikuluen arabera, hautagaitzan ageri diren berberak badira.

### **39. artikulua. Presidentearen agintaldiaren iraupena.**

- 1.- Presidentearen agintaldiak lau urteko iraupena izanen du, eta epe bererako hautatu ahal izanen da. Bigarren agintaldiaren ondoren, ezin izanen du bere burua berriz aurkeztu.
- 2.- Aipatu agintaldia lehenago amaitu ahal izanen da, honako arrazoi hauengatik:
  - a) Dimisioa.
  - b) Epai irmo bidezko desgaikuntza.
  - c) Heriotza edo ezgaitasuna.
  - d) Batzar Nagusiak onarturiko zentsura-mozioa.

### **3. ATALA. ZUZENDARITZA-BATZORDEA.**

#### **1. SAILA. ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN IZENDAPENA ETA OSAKETA.**

### **40. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen izendapena.**

Presidenteak, behin Hauteskunde Batzordeak bera aldarrikatuta, Zuzendaritza Batzordeko kide gisa eta lehiatu ziren karguekin hautagaitzan ageri ziren lagun guztiak berretsi beharko ditu. Gainera, bertze kide batzuk ere izendatu ahal izanen ditu, Estatutu hauen 26. eta 41. artikuluetan zehazturiko kide-kopuruari eta betekizunei jarraiki.

### **41. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen osaketa.**

- 1.- Pertsona hauek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea:
  - a) Presidenteak;
  - b) Presidenteordea edo, hala badagokio, Presidenteordeak;
  - c) Idazkaria;
  - d) Diruzaina;
  - e) Kontularia;
  - f) Batzordekideak.

Zuzendaritza Batzordeko kide-kopurua ezin izanen da bortzekoa baino txikiagoa eta hamabikoa baino handiagoa izan.

- 2.- Zuzendaritza Batzordeko kideen kargu guztiak doakoak izan beharko dira. Gisa berean, ezin izanen dute Klubeko langile izan, edo ordaindutako kargurik bete.
- 3) Urteko Kontuen Auditoretzaren izendapena eta kontratazioa Zuzendaritza Batzordeak egingen du, eta EZBk berretsiko du.

#### **2. SAILA. ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN EGITEKOAK ETA AGINTALDIA.**

### **42. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen egitekoak eta eskumenak.**

Hauek dira Zuzendaritza Batzordearen berezko egitekoak:

- a) Batzar Nagusiaren akordioak bete.
- b) Kluba ordezkatu.
- c) Estatutuetakoa xedapenak bete eta betetzeko orduan sor daitezkeen zalantzak argitu.
- d) Bazkideak onartu eta kanporatu.
- e) Jokalariak, teknikariak, langileak eta gainerako zerbitzu-langileak kontratatatu, eta haiek fitxatzeko baldintzak eta bertze ordainsari batzuk ezarri. Halaber, Klubaren alde lan egiten duten boluntarioen laguntza solidarioa jaso, boluntariotzari buruz indarrean dagoen araudiari jarraiki.
- f) Ekitaldi ekonomiko bakoitza itxi, eta, gehienez hiru hilaren buruan, Klubaren informazio ekonomiko azaldu; bereziki, ekitaldi ekonomikoaren itxiera (Balantzea eta Emaitzen Kontua), aurrekontua eta memoria, gerora Batzar Nagusiari horiek onartzeko proposamena egiteko. Lehen aipatu informazio

guztia Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek sinatu beharko dute. Kideren baten sinadura ez balego, falta den dokumentu guztietan adieraziko litzateke, zergatia espresuki azaldurik.

g) Batzar Nagusiak deitu, gai-zerrenda zehaztu, eta bazkideek garaiz eta egoki aurkezturiko proposamenak onartu.

h) Kirol-lizentziak aurkeztu, traspasoak egin, kontratuak desegin eta zigorrak ezarri, indarrean dagoen Lan eta Kirol Araudiaren eta Klubaren Barne Araudien arabera.

i) Banketxeekin lan egin; kanbio-letrak igorri, negoziatu eta onartu; eta, oro har, banku-legeriak onarturiko eragiketak egin.

j) Lagunarteko norgehiagokak eta zelai-lagapenak hitzartu; abonamendu eta sarreren prezioak finkatu; edaritegiak, tabernak, publizitatea eta antzeko zerbitzuak hitzartu; instalazioetan edonolako ikuskizunak antolatu, baldintzak jarrita; eta Klubari laguntzeko egunak zehaztu.

k) Instalazioetan lanak eta eraberritze-lanak egin.

l) Bidaia-zerbitzuak hitzartu eta aseguru-polizak izenpetu.

m) Zergak ordaindu.

n) Errentamenduak eta higiezin lagapenak kontratatu.

o) Zorrak eta betebeharrak onartu, ordainketa-modua adostu, horretarako mailegu-polizak sinatuta ere, Estatutu hauen 23. 2 f) eta 25.3. artikuluetan jasotako eskumenak erabiliz.

p) Kluberako komenigarriak izan daitezkeen xedapenak adostu, Batzar Nagusiaren eskumen ez badira, ahalegina eginez finantza- eta hornidura-kontratuen zein bertzelakoen kasuan horien iraupena ez dadin izan Zuzendaritza Batzordearen agintaldia baino luzeagoa.

q) Bere garaian CLUB ATLÉTICO OSASUNAren aktiboaren parte izan zen ondarea berreskuratzeko konpromisoa. Urteko Ohiko Batzar Nagusian, bazkideei azalpen egokia eman beharko die.

r) Espresuki ohartarazi behar da Zuzendaritza Batzordeak ez duela eskumenik izanen langile ez-kirolariekin kontratua desegiteagatik kontratu blindaturik egiteko. Kaleratze bakoitzagatik kalte-ordaina hitzarmenaren arabera izanen da.

s) Zuzendaritza Batzordeak, gisa berean, konpromiso hauek ditu:

1.- Jarduera Memoria, ekitaldiaren likidazioa eta aurrekontua egin, urtero Batzar Nagusiari aurkezteko.

2.- Berari laguntza emango dioten organoak sortu, batzordeak edo sailak eratuz, jarduerak eta erantzukizunak era berezitan gara ditzaten, osaketa eta funtzionamendurako barne-arauak zehaztuta. Batzorde eta sailak batuko dituen organoa ere sortu ahal izanen da. Organo horiek ezin dituzte Zuzendaritza Batzordearen eskumenak eta erantzukizunak ordezkatu, eta eremu zehatz baten lan egitera edo eskatu zaienari buruzko aholkua ematera mugatu behar dute.

3.- Klubaren administrazio orokorra, funtzio-organigrama zehazturik, barne- eta langile-egiturekin, kudeaketarako, jarraipenerako eta kontrolerako. Klubaren webgunean erakunde-egitura argitaratu.

4.- Batzar Nagusiari, denboraldia hasi aurretik, sail bakoitzaren ildo nagusiak eta plangintza aurkeztu.

5.- Goi-mailako zuzendari izendapena duten langileak izendatu eta baliogabetu, eta Klubeko langileekin izan beharreko lan-harremanetarako ildo nagusiak zehaztu, ordainsariariei, lan-baldintzei eta kontratazioari dagokienez.

6.- Ekonomia-xedapenak eta Klubaren finantzaren, kontuen eta ondarearen zuzendaritza, jarraipena eta zaintza, Batzar Nagusiaren eskumenak bazter utzi gabe, Ekonomia Zaintzarako Batzordeak gainbegiratuta.

- Demandak edo errekurtsioak jarri, administrazio-, auzi-, federazio- edo arbitro-bidetik, Klubaren interesak babesteko beharrezkoak direnean.

- Estatutuak, garapen-xedapenak eta barne funtzionamendurako araudiak aldatzeko proposamenak egin; ondoren, Batzar Nagusiak onartu beharko ditu.

- Komunikazio-sistema ezarri (online: posta, webgunea), bazkideei une oro Klubarekin zerikusia duten kontu garrantzitsuenen berri emateko. Bide horrek balio izanen du, halaber, bazkideek zalantzak argitzeko edo behar duten informazioa eskatzeko, eta Klubak erantzuteko betebeharra izanen du.

- Era berean, 5 urtean behin, Estatutuen berrikusketa egin behar izanen da, gizartera egokitzen ote den aztertzeko. Beharrezkoa balitz, bertze Estatutu batzuk eginen lirateke. Prozesu hori irekia litzateke, zale guztien aurrekoa.

#### **43. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen agintaldiaren iraupena.**

Zuzendaritza Batzordeak utziko du kargua Presidenteak egiten duenean.

Zuzendaritza Batzordean hutsik geratzen diren karguak beteko dituzte Presidenteak haiek betetzeko baldintzak betetzen dituztenen artetik aukeratzen dituen lagunek, eta Batzar Nagusiari jakinarazi beharko zaio. Kargua beteko dute Zuzendaritza Batzorde horren agintaldia amaitu arte.

#### **44. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen bilerak.**

1.- Zuzendaritza Batzordea bilduko da Presidenteak egoki irizten dionean edo kideen ehuneko hogeita bortzek eskatzen duenean. Bigarren kasuan, bilera berrogeita zortzi orduko epean egin beharko da. Gutxienez hilean behin bildu beharko da.

2.- Presidenteak gai-zerrendari jarraiki bideratuko du bilera, txandak zehaztu eta gaiak bozkatzera eramango ditu, egoki irizten dionean. Presidenteak erabakiko du bozketa izenezkoa, sekretua ala bertzelakoa den.

3.- Akordioak bertaraturikoen botoen gehiengo bidez eginen dira, eta Presidenteak kalitatezko botoa izanen du.

4.- Deialdia nahikoa garaiz eginen da, Presidenteak zehazturiko larritasun handiko kasuetan salbu, eta behar bezala osatuko da: lehen deialdian, kideen gehiengo bertaratuta; bigarrean, kideen herena. Bi deialdien artean hogeita hamar minutuko tartea izanen da.

5.- Zuzendaritza Batzordeko kideek isilpean gordeko dituzte Batzordearen beraren erabaki eta akordioak, eta ezin izanen dituzte zabaldu. Klubak egoki deritzen hedabideak, pertsonak edo Klubeko organoak jakinaren gainean jarriko ditu, prentsa-oharren bidez edo Batzordeak berak beren-beregi izendaturiko zuzendaritza-kideen bidez.

6.- Idazkariak Zuzendaritza Batzordearen bilera ororen akta idatziko du, non adosturiko erabakiak agertuko diren. Idazkariak aktak artxibatu, eta dagokion liburua osatuko du haiekin, berak sinatuta eta Presidenteak edo akta horri dagokion bileraren buru izandakoak Ontzat Eman.

### **3. SAILA. ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN BATZORDEAK ETA BERTZE KARGU BATZUK.**

#### **45. artikulua. Informazio Batzordeak.**

Presidenteak, Zuzendaritza Batzordean bertan, Informazio Batzordeak osatu ahal izanen ditu; lan edo zerbitzu zehatzak esleituko zaizkie, Klubaren hobe beharrez.

#### **46. artikulua. Presidenteordea.**

Presidenteordeak, presidenteorden ordenaren arabera, Presidentearen funtzioak beteko ditu, hura, edozein arrazoiengatik, ez dagoenean.

Hainbat Presidenteorde baleude, haien hurrenkera zehaztuko da.

#### **47. artikulua. Idazkaria.**

Hauek dira Idazkariaren betebeharrak:

- a) Batzar Nagusietako eta Zuzendaritza Batzordeetako Aktak idatzi.
- b) Oharrak eta deialdiak egin.
- c) Bazkideen Erroldaren Liburua kudeatu.
- d) Urteko Memoriak idatzi eta horretarako beharrezkoak diren dokumentuak sinatu.
- e) Presidenteak ontzat emandako ziurtagiriak egin.
- f) Erakundearen artxibo osoa zaindu.

#### **48. artikulua. Diruzaina.**

Hauek dira Diruzainaren betebeharrak:

- a) Klubaren diru-sarrerak eta gastuak kudeatu.
- b) Berari helarazitako eta Klubean sinadura baimendua duten lagunetatik gutxienez bik sinaturiko ordain-aginduak bete.
- c) Kutzako mugimendua zaindu. Txkeak, taloiak, ordaindukoak eta bertzelako finantza-dokumentuetako letrak sinatu ahal izanen ditu, horretarako sinadura baimendua duen bertze pertsona batek lagundurik.
- d) Klubaren funtsak eta kredituak zaindu: kutxako sarrera eta irteerak, banku-kontuak eta aktibo likidoak.

#### **49. artikulua. Kontularia.**

Kontulariaren erantzukizuna da ekonomia-liburuak ongi kudeatzea. Gisa berean, inbentarioa, aurrekontua, balantzea eta urteko kontuak osatuko ditu. Klubaren gastuen eta sarreren kontu-hartzailatza ere kudeatuko du.

#### **50. artikulua. Batzordekideak.**

Batzordekideek Zuzendaritza Batzordearen eskumenetan parte hartu behar dute, eta organo horrek adosturiko zereginak bete.

#### **4. SAILA. ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN ERANTZUKIZUNA.**

#### **51. artikulua. Arduraren zioak eta moduak.**

Zuzendaritza Batzordeko kideak, ekintza zein omisio errudunagatiko edo arduragabekeriagatiko kalteengatik, erantzuleak izango dira Klubaren, bazkideen eta hirugarrenen aitzinean. Erantzukizuna ezein kideri egotzi ezin izanez gero, guztiak izanen dira erantzuleak, modu solidarioan, Nafarroako Kirol Erakundearen apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuaren arabera. Aurrekoa baztertu gabe, eta modu espezifiko eta objektiboan, Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kudeaketan izandako ekonomia-erantzukizun bateratua izanen dute. Horretarako, txapelketa profesionaletan parte hartzen denean, indarrean dagoen legeriak xedaturiko abala jarri beharko dute (Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 7. xedapen gehigarria; Kirol Elkarte Anonimoei buruzko uztailaren 16ko 125/1999 Errege Dekretuaren 2. eta 3. xedapen gehigarriak; eta Futbol Profesionaleko Ligako Estatutuen 51.12. eta 60.9. artikulua), edo, bestela, hura ordezkatzen duten xedapenek ezarritakoa.

#### **5. SAILA. ZENTSURA-MOZIOA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA.**

#### **52. artikulua. Zentsura-mozioa eta estatutuak aldatzea.**

1.- Zentsura-mozioa izapidetzea.

- a) Batzar Nagusiak zentsura-mozioa aurkeztu ahal izanen du, bazkide zenbakidunen gutxienez ehuneko hiruk deituriko Ezohiko Batzarrean.
- b) Zentsura-mozioa eztabaidatzeko Batzarrerako deialdia eskaturik, proposamen-idazkia Klubean sartu eta gehienez hiru hileko epean deitu beharko da; Zuzendaritza Batzordeak hala egin ezean, eskaera egin duen kolektiboak berak egin ahal izanen du deialdia. Aipatu kolektiboak eskuragarri izanen du Klubeko konpromisarioen zerrenda.
  - c) Zentsura-mozioak beste Presidente bat izendatzeko proposamena ekarriko du, eta, hala badagokio, beste Zuzendaritza Batzorde bat izendatzekoa. Mozioa onartuz gero, zuzenean izanen da hautetsi aldarrikatua. Presidente berriaren agintaldia eta, hala badagokio, Zuzendaritza Batzorde berriarena, kargugabeturiko Presidenteari zegokion legealdiaren amaierara arte bakarrik luzatuko da.
  - d) Zentsura-mozioa eztabaidatzeko Batzarrean, hautagaiari beraren programa azaltzeko zentzuzko denbora-tartea eskainiko zaio, eta zentsuraturiko Presidenteak tarte bera izanen du erantzuteko. Ondoren, batzarkideek aitzinekoen tarte bereko txandak izanen dituzte, amaitutakoan bozketa egiteko.
  - e) Zentsura-mozioa Batzarkideen erdiek gehi batek onartu behar izanen du.

- f) Mozioa onartu ezean, ezin izanen da bertzerik aurkeztu kirol-denboraldi berean.
- g) Zentsura-mozioan aurkezturiko Zuzendaritza Batzordeak aitzinetik gutxienez bazkideen ehuneko hiruren abala izan beharko du. Gisa berean, Futbol Profesionaleko Ligaren aitzinean banku-abala aurkeztu behako du, zeinak bermatuko duen onarturiko azken gastu-aurrekontuaren % 15, gutxienez. Abal horrek bete beharko ditu hauteskundeetara aurkezten den edozein hautagaitzak izan beharreko abalaren eskakizun berak, Estatutu hauen 31. artikuluan zehaztuak. Era berean, bere gain hartu beharko ditu zentsuraturiko Zuzendaritza Batzordeak Konpromisarioen Batzordeari aurkezturiko aurrekontuek ekarritako betebeharrak ekonomikoak.
- 2.- Estatutuak aldatzea.
- a) Klubaren Estatutuak aldatzeko proposamena Ezohiko Batzar Nagusian aurkeztu ahal izanen da, gutxienez konpromisarioen ehuneko hamarrek eskatuta Zuzendaritza Batzordeak deitutakoan. Halaber, Zuzendaritza Batzordearen ekimenez ere proposatu ahal izanen da Estatutuak aldatzea.
- b) Zuzendaritza Batzordeari Estatutuen aldaketa eztabaidatzeko Batzarrerako deialdia eskaturik, gehienez hilabeteko epean egin behar izanen du deialdia, proposamen-idazkia Klubean sartzen den egunetik aurrera; Zuzendaritza Batzordeak hala egin ezean, eskaera egin duen kolektiboak berak egin ahal izanen du deialdia, eta eskuragarri izanen du Klubeko konpromisarioen zerrenda.
- c) Deialdi-eskaerak Estatutuak aldatzeko proposamena ekarriko du, jada idatzita.
- d) Estatutuak aldatu ala ez eztabaidatzeko Batzarrean, aldaketa proposatu duen kolektiboari zentzuzko tartea eskainiko zaio proposamena arrazoitzeko, eta Zuzendaritza Batzordeak tarte bera izanen du erantzuteko. Ondoren, batzarkideek aitzinekoen tarte bereko txandak izanen dituzte, amaieran bozketa egiteko.
- e) Estatutuak aldatzeko proposamena bertara nahiz ordezkaturik joandakoen bi herenek onartu behar izanen dute.
- f) Estatutuak aldatzeko proposamena onartu ezean, ezin izanen da bertzerik aurkeztu, Estatutuak aldatu ala ez eztabaidatzeko azken Batzarretik urtebete joan arte.

#### **4. ATALA. KUDEAKETA-BATZORDEA.**

##### **53. artikulua. Izendapena.**

Presidenteak eta Zuzendaritza Batzordeak dimitituz gero, eta 31.6. artikuluan zehazturikoa alde batera utzita, Hauteskunde Batzordeak Ezohiko Batzar Nagusia deitu behar izanen du, eta bertako buru izan. Batzar horrek puntu bakarra izanen du gai-zerrendan: Kudeaketa Batzordearen izendapena.

##### **54. artikulua. Kudeaketa Batzordearen osaketa eta egitekoak.**

- 1.- Kudeaketa Batzordea presidente batek eta lau batzordekidek osatuko dute.
- 2.- Batzarra hasi baino lehen, Kudeaketa Batzordeari hautagaitzak aurkeztu ahal izanen zaizkio.
- 3.- Hautagaitzan, Presidentearen eta lau batzarkideen izenak agertu behar dira. Gisa berean, kide guztien sinadura originalak, NA eta bazkide-zenbakia ere ageriko dira.
- 4.- Hautagaitzak aurkezturik, guztiek izanen dute bere burua zergatik aurkeztu duten azaltzeko zentzuzko tartea.  
Hautagaitza guztiek arrazoiak azaldutakoan, bozketa egingen da. Bozketa sekretua izanen da, eta soilik bozkatuko dute Batzarrera bertaratu diren edo ordezkaturik dauden bazkide konpromisarioek.
- 5.- Kudeaketa Batzordeak Klubaren ordezkari- eta administrazio-funtzio arruntak beteko ditu.
  - 1.- Kudeaketa Batzordeak Presidentetzarako hauteskundeetarako deialdia egin behar izanen du, Estatutu hauen 27. artikuluari jarraiki, 15 eguneko epean.
  - 2.- Estatutuen 31. artikuluan ezarritako ezein deialditan Presidentetzarako hautagairik izan ezean, Kudeaketa Batzordeak, gehienez 10 eguneko epean, bertze Batzar baterako deialdia egingen du. Bertan, Kudeaketa Batzordearen dimisioaren ondoren, Batzorde berria hautatuko da.

#### **5. ATALA. KUDEAKETAREN INFORMAZIO- ETA GARDENTASUN-ORGANOA EDO EKONOMIA-ZAINTZARAKO BATZORDEA.**

##### **55. artikulua. Xedea, egitekoak eta eskumenak.**

1.- Xedea. Klubak egiten dituen edota Klubarekin zerikusia duten ekonomia-, finantza-, zerga- eta administrazio-jardueren azterketak, ikuskaritzak eta ebaluazioak, bazkideari Klubaren kudeaketaren gaineko informazioa helarazteko eta kudeaketa egokiaren gardentasunean laguntzeko.

Ekonomia Zaintzarako Batzordeak ez du inola ere egiteko betearazlerik izanen, ezin izanen du Zuzendaritza Batzordearen edo Klubaren kudeaketa-organoen aurkako erabaki hertsatzailerik, zigortzailerik edo gaitzeslerik hartu. Eskumen horiek Bazkideen Batzar Nagusiarenak dira, Klubaren organo gorena izaki.

2.- Egitekoak. Hauek dira Ekonomia Zaintzarako Batzordearen egitekoak:

a) Klubak egiten dituen edota Klubarekin zerikusia duten edo parte hartzen duen gertakarien, kontratuen eta, oro har, ekonomia-, finantza-, zerga- eta administrazio-jardueren azterketa, ikuskaritza eta ebaluazioa. Jarraipen hori etengabekoa izanen da.

b) Aitzineko puntuan aipatu jarraipenaren emaitza jasoko duten txosten eta dokumentuak prestatu, eta bazkideei aurkeztu.

c) Batzar Nagusia deitu, Zuzendaritza Batzordeak bere lana behin eta berriro oztopatuko balu edo irregulartasun ekonomikoak topatuz gero. Kasu bietan, Ekonomia Zaintzarako Batzordeak frogagiria egin beharko du.

d) Klubaren kaudimena, 26/2014 Foru Legean jasotako betebeharrak eta zerga-betebehar arruntak egiaztatu.

3.- Eskumenak. Bere egitekoak betetzeko, ekintza hauek egin ahal izanen ditu:

a) Araudia eta ekonomia-kudeaketarako prozedurak betetzen direla egiaztatu.

b) Aurrekontua egitean, jarraipena eta sarrera- eta gastu-helburuak betetzeko egiaztapena; egoeraren balantzearen, emaitza-kontuaren, memoriaren eta kudeaketa-txostenaren egiaztapena.

c) Altxortegiaren planifikazioaren, kudeaketaren eta egoeraren egiaztapena.

d) Eragiketa eta prozeduren azterketa, ekonomia- eta finantza-arrazoizkotasunaren balorazioa egitearren eta kudeaketa egokirako printzipioetara egokitze. Hartara, hutsuneak topatuko balira, zuzentzeko proposamenak egin ditzake.

e) Organismo honen xedea betetzeko beharrezkoak diren kontabilitateko erregistroak, kontuak, finantza-egoera, bankuko kontu-laburpenak, kontratuak eta edozein motatako dokumentazioa aztertu.

f) Lanen, zerbitzuen, horniduren eta gastuen zein haiekiko adostasunaren egiaztapen materiala.

g) Kudeaketa-sistemaren eta prozeduren azterketa.

h) Zuzendaritza Batzordetik bertako kideek edozein arrazoiengatik jasotzen duten ordainsariei edo dietei buruzko informazio guztia erdietsi.

i) Aipatu xedea lortzeko bertez edonolako egiaztapenak egin.

j) Zuzendaritza Batzordearekin eta bertako kideekin zerikusia duen ekonomiaren, finantzen, lanaren, administrazioaren eta kontratuen arloko eta ondorio ekonomikoa duen bertzelako eragiketa ororen informazioa erdietsi.

## **56. artikulua. Osaketa eta funtzionamendua.**

1.- Kideak. Ekonomia Zaintzarako Batzordea lau kidek osatuko dute, gehienez; lau ordezeko ere egon ahal izanen dira.

Gainera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ordezkari bat izendatuko du Ekonomia Zaintzarako Batzorderako, zeinak ahotsa eta botoa izango dituen, Estatutu hauen 55.2.a) artikuluan jasotako egitekoak eta 55.3. artikuluko eskumenak betetzeko, Klubaren zerga-zorra berregituratzeko abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legearen 5. artikuluari jarraiki. Hori aipatu Foru Lege horren 5. artikuluan aipatu baldintzak bete arte.

Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kideek 55.3. artikuluko eskumenak bakarka egikaritu ahal izanen dituzte.

Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kide izatea doakoa da bazkideendako. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendaturiko kidearen kargua, pertsona hori funtzionarioa izan ezean, ordaindua izan daiteke; hala balitz, Klubak hartuko du bere gain ordainketa.

2.- Batzordekide izateko baldintzak eta iraunkortasuna. Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kide izan nahi duten pertsona fisikoek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Gutxienez urtebeteko antzinatasuna duen bazkide izan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendatzen duen kidearen kasuan salbu, ez baitu zertan bazkide izan.

b) Organo honi dagozkion egitekoak betetzeko titulazioa edota eskarmentua edota kalifikazio profesionala egiaztatu. Titulazioen artean, apropostzat jotzen dira Ekonomian, Enpresa Zientzietan edo



Zuzendaritza Doktorea, Lizentziaduna, Graduduna edo Diplomaduna, Merkataritza Tituluduna edota aipatu esparruekin loturiko graduondo ofiziala duen edozein pertsona.

Eskarmentuari dagokionez, ibilbide profesionalari eta organo honen xedearekin zerikusia duenari erreparatuko zaio.

c) Zuzendaritza Batzordeko kideekin edo Klubaren Zuzendaritzako langileekin odol-ahaidetasunik edo ahaidetasunik ez izan, lerro zuzeneko gradu-mugarik gabe edota alboko lerroko laugarren gradura arte.

d) Ez izan ez mendeko lan-harremanik ez partizipaziorik inongo negoziotan, merkataritza-sozietatetan edo antzekotan Zuzendaritza Batzordeko kideekin eta Klubaren Zuzendaritzako kideekin, ez zuzenean ez zeharka.

e) Ez izan ez mendeko lan-harremanik ez partizipaziorik inongo negoziotan, merkataritza-sozietatetan edo antzekotan Klubarekin, ez zuzenean ez zeharka, ezta interesduna ere Batzordean sartu aitzineko urtean.

c, d eta e ataletan aipatu harremana bat-batean sortuz gero, Batzordeko kideak berehala jarri behar izanen ditu gainerako kideak jakinaren gainean, eta dimisioa aurkeztu beharko du. Libre dagoen lehen ordezkioak ordezkatu du.

3.- Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kideen betebeharrak:

a) Klubari dagokion guztian leialtasunez eta zintzotasunez jokatu.

b) Egitekoak eraginkortasunez eta arduraz bete.

c) Egitekoak objektibotasunez aurre egin, bertzeren iritziei men egin gabe.

d) Eskura izanen duten informazioa eta dokumentazioa isilpean gorde, erabateko konfidentziasunez, karguan izan bitartean zein kargugabetutakoan, beren egitekoak betetzeko edo epailearen aginduz izan ezean. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendaturiko ordezkaria konfidentziasun-betebeharretik salbuetsita izanen da, 26/2014 Foru Legean xedaturiko informazio-betebeharrei dagokienez.

4.- Iraupena eta kargua uztea. Batzordeko kide bazkideen karguaren iraupena lau ekitaldi ekonomikoa izanen da. Batzordeko ezein kide ezin izanen du kargua berriz bete kide izateari utzi eta lau ekitaldi joan arte. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendaturiko kideari dagokionez, paragrafo honetan ezarritakoa ez da kontuan hartuko, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erabakiko du zer egin.

Hauek izanen dira kide bazkideek kargua uzteko arrazoiak:

a) Epea amaitzea.

b) Dimisioa.

c) Batzar Nagusiak adosturiko baliogabetzea.

d) Agintaldian, 8. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat bat-batean ez betetzea.

e) Bere eginbeharrak betetzea jarraian sei hilez baino gehiagoz eragozten dion edozein egoera.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkaria Administrazioak berak baino ezinen du kargugabetu.

5.- Izendapena eta osaketa. Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kide bazkideen izendapena Batzar Nagusiak egiten du, arau hauei jarraiki:

a) Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kide izateko, 56.2. artikuluan ezarritakoa betetzen duen edozein bazkidek aurkeztu ahal izanen du bere burua, hautagaitza Klubaren egoitza sozialera eramanda, Batzar Nagusirako deialdia egiten denetik Batzarra egin baino 48 ordu lehenagora arte.

b) Lau hautagai baino gutxiago izanen balira, aurkezturikoak zuzenean izendatuko dira Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kide, bozketarik egin gabe.

c) Lau hautagai baino gehiago baleude, bozketa egiten da. Lau hautagairik bozkatuenak izendatuko dira Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kide. Hurrengo laurak, dagokien hurrenkeran, ordezkioak izanen dira. Berdinketa izanez gero, bazkide-zenbakirik zaharrena duenak irabaziko du.

d) Bozkatzeko eskubidea duten Ekonomia Zaintzarako Batzordeko kideek, beren artetik, Presidentea eta Idazkaria hautatuko dituzte; berdinketa izanez gero edo akordioak erdietsi ezean, urte gehien duen kidea izanen da Ekonomia Zaintzarako Batzordeko presidentea, eta gazteena, berriz, Idazkaria.

6.- Erabakiak hartzea. Akordio guztiak gehiengo soilez onartuko dira. Aitzitik, iritzirik, erabakiak edo balorazioak jasoko dituzten txostenetan, batzordekideek akordio horiek lortzeko modua islatuko da: boto partikularra onartuko da, eta desadostasunaren zein arrazoiari berri emanen da.

7.- Zuzendaritza Batzordearen lankidetzat. Zuzendaritza Batzordeak eta Klubeko zuzendaritza- eta kudeaketa- alorretako langileek Ekonomia Zaintzarako Batzordeari bere egitekoak betetzeko beharrezko lekua eta giza baliabideak zein baliabide materialak eskainiko dizkiote. Horrez gain, Klubeko estamentu guztien laguntza jaso beharko du, bere xedea betetzeko.

## **57. artikulua. Txostenak.**

Ekonomia Zaintzarako Batzordearen lanaren emaitza bi txosten idatzitan jasoko da: bata, ekitaldi ekonomikoaren lehen erdiari buruzkoa; bertzea, ekitaldi ekonomiko osoaren gainekoa. Biak Zuzendaritza Batzordeari bidaliko zaizkio, hamabortz egunean baino gutxiagoan alegazioak aurkez ditzan. Batzordeak alegazio horiek aztertutakoan, behin betiko txostena idatziko da, eskatu duten bazkideek eskura izan dezaten. Gainera, Klubaren webgunean argitaratu behar izanen da.

Behin betiko txosten bakoitzak Klubaren egoeraren ebaluazio kritikoa egin behar izanen du, bai eta ebaluaturiko epealdiari dagozkion oharra eta iradokizunak planteatu ere.

Behin betiko txostenak nahitaezkoak dira, hau da, ezinbertzekoak izanen dira Batzar Nagusiaren edozein erabaki hartzeko.

Nahitaezkoa izanen da aipatu behin betiko txostenak Ezohiko nahiz Ohiko Batzar Nagusi guztietan azaltzea, Batzarrari dagokion gai-zerrendako puntu batean, bertze edozein punturi heldu aurretik, azken Batzarreko akta onartzeko puntuaren aurretik salbu.

Batzordearen behin betiko txosten guztiak, bai eta, izanez gero, boto partikularrak ere, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentura eta Klubaren Zuzendaritza Batzordera bidaliko dira, aldi berean.

Ekonomia Zaintzarako Batzordearen lanak biltzeko behin betiko txostenek Batzordeko kideek Klubaren kaudimenari, 26/2014 Foru Legeak ezarritako betebeharrak betetzeari, zerga-betebehar arruntei eta kirol-agintariaren finantza-araudia betetzeari buruz duten iritzi oinarriak jaso beharko dute.

Klubaren Estatutuen 52. artikuluan ezarritakoa bazter utzi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Ekonomia Zaintzarako Batzordean duen ordezkariari dei egin ahal izanen dio, edonoz atal honetan aipatu gai buruzko informazioa eman dezan.

## **VI. IZENBURUA. DOKUMENTAZIO-, KONTU-, EKONOMIA-, FINANTZA- ETA DIZIPLINA-ARAUBIDEA.**

### **1. ATALA. DOKUMENTU- ETA KONTU-ARAUBIDEA.**

#### **58. artikulua. Dokumentu- eta kontu-araubidearen osaketa.**

Hauexek osatuko dute Klubaren dokumentu- eta kontu-araubidea:

- a) Bazkideen Erroldaren Liburua. Bazkideen datuak agertuko dira, altak eta bajak zehazturik.
- b) Akta-liburuak. Batzar Nagusien eta Zuzendaritza Batzordearen erabakiak agertuko dira. Aktak Presidenteak eta Idazkariak sinatuko dituzte beti. Bertaraturiko Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideek ere sinatu ahal izanen dituzte. Batzar Nagusietako aktak, gainera, Batzarrean bertan hautaturiko hiru bazkide konpromisariok sinatuko dituzte.
- c) Ekonomia Zaintzarako Batzordearen Akta-liburuak.
- d) Lagunarteen Erroldaren Liburua.
- e) Kontabilitate-liburuak. Klubaren sarrera eta gastu guztiak agertuko dira, baita Futbol Profesionaleko Espainiako Ligaren zehaztapenen eta une bakoitzean indarrean dagoen Kontabilitate Plan Nagusiaren araberako kontabilitateko idazpen guztiak ere.
- f) Urteko Egoeraren Balantzeak eta Emaizta-kontuak.

Dokumentazio hori guztia baliabide eta euskarri informatikoen bidez egin eta gorde ahal izanen da.

### **2. ATALA. EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA.**

#### **59. artikulua. Aurrekontu-araubidea.**

- 1.- Kluba bere aurrekontuaren eta ondarearen mende izanen da.
- 2.- Klubak bere ondasunak soilik bideratu ahal izanen ditu helburu industrialetara, komertzialetara, profesionaletara edota zerbitzuekin loturikoetara, edo mota horretako jarduerak egitera; hori guztia balizko onurak oso-osorik Klubaren gizarte-helbururako erabiltzen badira, bazkideen artean inolako etekinik banatu gabe.
- 3.- Klubaren sarrera guztiak soilik baliatuko dira kirol-jarduerak bulkatzeko eta garatzeko.

### **60. artikulua. Ekonomia- eta finantza-eragiketak.**

- 1.- Klubak, bere ondasun higiezinak zergapetzeko edo besterentzeko, ezingo du inola ere bere ondarea arriskuan jarri.
- 2.- Estatutu hauen 23.2.f) eta 55.c) artikuluetan ezarritakoa betetzeko, indarrean diren maileguen zenbateko guztien batuketa aurrekontuaren erdiaren (% 50) barruan jasoko da.

### **3. ATALA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA.**

#### **61. artikulua. \* 2016/03/17ko Ezohiko Batzarrean onarturiko idatzia.**

- 1.- Araubide aplikagarria.

Estatutuen, Barne Araudiaren eta gainerako gizarte-araudien aurkako ekintzengatik, egoki sailkaturik badaude, ekintzen larritasunaren arabera zehapena ezarriko da.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, beren garrantziaren edo ondorioaren arabera.

Arau-hauste arinengatik zigorrek hauek izanen dira: ahozko ohartarazpena, gizarte-eskubideen 30-90 egun bitarteko galarazpena edo epe berean Klubaren instalazioak erabiltzeko debekua.

Arau-hauste larriengatik zigorrek hauek izanen dira: idatzizko ohartarazpena, gizarte-eskubideen 90 egun-urtebete bitarteko galarazpena edo epe berean Klubaren instalazioak erabiltzeko debekua.

Arau-hauste oso larriengatik zigorrek hauek izanen dira: gizarte-eskubideen urtebete-3 urte bitarteko galarazpena edo bazkide-izaeraren galera. Azken kasu horretan, berriz bazkide izaten ez uzteko erabakia har liteke.

Arau-haustea zigortzeko dira arau-haustearen larritasunaren, norberaren erruduntasun-mailaren, asmoaren, ekintzaren ondorioaren, errepikapenaren edo berrerortzearen eta arau-haustean izaniko bertzelako inguruabar astungarrien edo aringarrien arabera.

Arau-haustearen erruduntasun-maila eta arau-haustearen larritasuna edozein izanik ere, arau-haustea eragindako kalte guztiak konpondu beharko ditu.

Arau-hausteengatik erantzukizuna kasu hauetan amaituko da:

- a) Zigorra betetakoan.
- b) Arau-hausteak preskribatutakoan.
- c) Zigorrek preskribatutakoan.
- d) Erruztatua hildakoan.
- e) Zigorra kendutakoan.

Arau-hauste arinak egin eta 6 hilera preskribatzen dira, larriak 2 urtera eta oso larriak 3 urtera.

Arau-hausteak preskribatzeko epea arau-haustea egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da. Preskripzioa prozedura hasteko erabakia hartzean eten egingen da, interesduna jakinaren gainean dagoela. Horretarako, erabakiaren ebazpena behar bezala erregistratuko da. Espedientea hilabetez baino gehiagoz geldirik egonez gero, epea berriz zenbatuko da.

Arau-hausteen preskripzio-epea zigorra jartzeko Ebazpena indarrean sartu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Ezarritako zigorrek epe hauetan preskribatuko dira: arau-hauste arina bada, urtebetera; larria bada, bi urtera; eta oso larria bada, hiru urtera.

Batzordean arau-hauste arintzat jo litekeen ekintza baten berri izandakoan, Zuzendaritza

Batzordeak lehenbailehen ebatziko du, interesdunari entzunaldia eskaini eta gero.

Ekintza arau-hauste larri edo oso larritzat jo baliteke, Zuzendaritza Batzordeak espedientea egiteko erabakia hartuko du, ekintza eta erantzukizunak argitzeke.

Bazkidearen Babesleari eskatuko zaio espedientea egiteko. Instrukzioa amaiturik, Zuzendaritza Batzordeak, espedientean jasotakoaren arabera, dagokion erabakia hartuko du, interesdunari entzunaldia eskaini eta gero. Erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesdunari.

Zuzendaritza Batzordeak ezarritako zigorrei errekurtsioa jarri ahal izanen zaie, Batzar Nagusian; horrek hurrengo bileran ebatzi beharko du, izan Ohikoa edo Ezohikoa.

Zigortzen duen entitatea edozein izanda ere, inor ez da zigortuko birritan ekintza beragatik.

2.- Legeria aplikagarria.

Kiroleko diziplina-ahalaz kanpoko arau-hausteak eta erantzukizunak Zuzenbide komunaren arabera arautuko dira.

Klubaren araudi orokorrari eta gainerako kirol-araubideari jarraiki Klubeko bazkideen, afiliatuen, kirolarien eta teknikarien joko- edo lehiaketa-arauen arau-hausteak zigortuak izan ahalko dira.

Artikulu honetarako, joko- edo lehiaketa-arauen arau-haustetzat joko dira berauek iraun bitartean lehia-jardueraren garapen arrunta oztopatzen duten eta aurretik tipifikaturik dauden ekintzak edo omisioak.

Era berean, kirol-harremanen garapena kaltetzen duten eta tipifikaturik dauden ekintzak edo omisioak joko- edo lehiaketa-arauen arau-haustetzat joko dira.

Kirol-diziplina kontuetan, Foru Komunitateko araudiari jarraituko zaio, eta, horren ordez, hala badagokio, Estatukoari.

Gisa berean, eta Klubeko kirolari profesionalendako, faltak eta zigorrak mailakatuko dituen diziplina-arautegia izanen da, LNFP-AFEren hitzarmen kolektiboa oinarri.

Bestalde, bazkideek, beren aurkako diziplina-neurriak hartu aurretik, entzunak izateko eskubidea izanen dute, bai eta zigorra zein ekintzak eragin duen jakitekoa ere.

## **VII. IZENBURUA. KLUBA DESEGITEA.**

### **62. artikulua. Desegiteko modua.**

1.- Kluba Ezohiko Batzar Nagusiko kideen hiru laurdenen adostasunez eta Estatutu hauen 7. eta 23.2.i) artikuluei jarraiki desegin ahal izanen da.

2.- Gobernuko Agintaritzaren Judizial eskudunaren ebazpen irmoagatik.

3.- Kluba deseginez gero, ondasun guztiak Nafarroako Foru Komunitateko irabazi-asmorik gabeko elkartearen artean banatuko lirateke, futbol-arloko kirol-jardueraren sustapena eta praktika bultzatzeko xedez.

## **VIII. IZENBURUA. EPEAK ZENBATZEA ETA AZKEN XEDAPENAK**

### **63. artikulua. Epeen zenbaketa.**

Estatutu hauetan epeez aritzean, eta baliodunak ala naturalak diren zehaztu ezean, balioduntzat joko dira. Beraz, larunbatak, igandeak eta jaiegunak ez dira zenbatuko. Hilez aritzean, berriz, datatik datara.

### **64. artikulua. Azken xedapenak.**

Estatutu hauen aurka egiten duen Araudi orok ez du inolako ondoriorik izanen, ezta aurreko Estatutu guztiek ere.

### **65. artikulua. Legeriaren araberako jokabidea.**

Estatutu hauek indarrean dagoen legeriari lotuta daude, eta, beraz, legeetan izan daitezkeen aldaketan mende dago.

### **66. artikulua. Erregistroa.**

Kluba Kirol Elkartei dagokien erregistroetan dago, estatu-mailakoetan zein Nafarroako Foru Komunitatekoetan.  
Xedapen Iragankor Bakarra.

Estatutu hauek Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatutakoan sartuko dira indarrean, osorik.